

**ikus
pegi**

Immigrazioaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de Inmigración

Universidad
del País Vasco
Euskal Herriko
Universitatea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
BERONTSASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



Erlificio-aniztasuna EAEn

Diversidad religiosa en la CAE

ZABALDU



CIP. Biblioteca Universitaria

Erlificio-aniztasuna EAEn [Recurso electrónico] / Ikuspegia- Immigrazioaren Euskal Behatokia. – Datos. – Bilbao: Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, 2024. – 1 recurso en línea: PDF (112 p.). – (Zabaldu; 2)

Modo de acceso: World Wide Web.

Texto bilingüe en euskara y español.

ISBN: 978-84-9082-652-2.

1. Pluralismo religioso – Opinión pública. 2. Libertad religiosa – País Vasco.
3. Discriminación – País Vasco. I. Ikuspegia, Observatorio Vasco de Inmigración.
II. Tít.: Diversidad religiosa en la CAE.

(0.034)316.64:2(460.15)

ZABALDU

2

Urtea eta lekua / Año y lugar de edición:

2024, Bilbao

Argitaratzailea / Edita:

Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco /
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

Diseinua / Diseño:

Emilia Oleaga

Maketazioa / Maquetación:

Artefakto Estudio

Itzulpena / Traducción:

Bakun Itzulpen eta Argitalpen Zerbitzuak, S.L.

Dokumentazioa / Documentación:

Antonio Gómez Parada, Ikuspegia – Observatorio Vasco de Inmigración

ISBN: 978-84-9082-652-2

Aurkibidea

Sarrera	5
1. EAEko erlijioen ezaugarritzea.....	7
1.1. Aldaketa sozio-erlijioso eta normatiboak.....	7
1.2. EAEko erlijioen mapa soziologikoa	9
1.3. Erlilio minoritarioen kultu-lekuak EAEn.....	17
Ane Estebaranz Delgado y Julia Shershneva	
2. Erlilio-aniztasunaren kudeaketa publikoa eta erlijio-gutxiengo egoera Euskadin.....	25
2.1. Abiapuntua. Erlilio-aniztasunaren aldaketa sozial eta sendotze-prozesua Euskadin.....	25
2.2. Euskadiko botere publikoak eta erlijio-aniztasunaren kudeaketa: 2009-2023	27
2.3. Erlilio minoritarioetako fede-bizipena. Elizak, elkartek eta erlijio-erakundeak Euskadin... Gorka Urrutia Asua, Trinidad L. Vicente Torrado, Asier Martínez de Bringas	31
Ondorioak.....	45
Bibliografia	49
Eranskinak.....	53

ZABAIDU

2

Índice

Presentación	57
1. Caracterizaciones de las religiones en la CAE	59
1.1. Cambios socio-religiosos y normativos	59
1.2. El mapa sociológico de las religiones en la CAE	61
1.3. Los centros de culto de las religiones minoritarias en la CAE	70
Ane Estebaranz Delgado y Julia Shershneva	
2. La gestión pública de la diversidad religiosa y la situación de las minorías religiosas en Euskadi	77
2.1. Punto de partida. Cambios sociales y cristalización de la pluralidad religiosa en Euskadi ...	77
2.2. Los poderes públicos vascos y la gestión de la pluralidad religiosa: 2009-2023	79
2.3. Vivencia de la fe de las religiones minoritarias. Iglesias, comunidades y entidades religiosas en Euskadi	84
Gorka Urrutia Asua, Trinidad L. Vicente Torrado, Asier Martínez de Bringas	
Conclusiones	97
Bibliografía	101
Anexos	105



Sarrera

Azken hamarkadetan, errealtate sozio-erlijiosoa zuztar-zuztarretik aldatu da Euskal Autonomia Erkidegoan –aurrerantzean, EAE-. Aldaketa horiek Estatu-ko beste erregio batzuetan bizi izan dituztenen ildo beretik doaz, baina euskal gizartearen ñabardurak eta berezitasunak ere badituzte. Izan ere, Euskadi erro-erotik aldatu da gizarte gehienbat katolikoa izateari utzi zionetik, eta aniztasun eta dibertsifikazio handiagoa du gaur egun erlijio-adierazpenei dagokienez, eta horrek argi eta garbi erakusten du erlijioa prozesu dinamiko bat dela. Bilakaera hori giza eskubideen onarpenari zor zaio hein handi batean, batez ere 1970eko hamarkadaren amaieran, demokrazia iristeaz batera, gurean nagusitu zen pen-tsamendu-askatasunaren ezarpenari. Horren ondorioz, nabarmen-nabarmena da katolizismoaz bestelako gero eta erlijio gehiago errtu direla gure gizartean, nazioarteko migrazioen ondorioz neurri batean. Mundua gero eta globalagoa eta anitzagoa den gure testuinguruan, hizpide dugun fenomenoa oso adierazgarria da gizarte garaikideetako dinamikak ulertzeko; hortaz, gaur egun Euskadin na-gusi den erlijio-aniztasun horren errealtitatea ezagutzeak sekulako garrantzia du.

Txosten honen asmoa EAEn gaur egun erlijio-aniztasunaren errealtitatea zertan den azaltzea da; horretarako, bi alderdi mota hartu ditugu kontuan: batetik, alderdi kuantitatiboak, gure ikergaiaren tamaina ezagutzen lagundu diezaguketen datuak aztertzen ditugunez gero; bestetik, alderdi kualitatiboak, euskal erakunde publikoek erlijio-aniztasunaren kudeaketan egindako urratsak azal-tzen eta erlijio-elkarrekeen erlijio-askatasuna den oinarrizko askatasuna praktikan jartzeari dagokionez dituzten premiak zehazten ditugunez gero.

Hori dela eta, hain zuzen, azken hamarkadetako aldaketa sozio-erlijioso nagu-siak testuinguruan jartza helburu duen atariko atalaz gain, txosten diagnostiko honek bi zati ditu. Lehenengoa kuantitatiboa da, eta euskal gizartearen erlijio-autoidentifikazioari buruzko datuak eta erlijio bakoitzak EAEn duen pisuaren balioespena aurkezten dira bertan, bai eta erlijio-sinesmen minoritarioek Eus-kadin han-hemenka dituzten kultu-lekuei buruzko datuak ere.

Bigarren zatia kualitatiboa da, eta aurreko kapituluan azaldutako informazioa osatzen ahalegintzen gara bertan; horretarako, erakundeek erlilio-aniztasuna-ren kudeaketari eman izan dizkioten erantzunak bildu ditugu, eta Euskadiko erlilio-entitate minoritarioen premiak eta eskariak azaldu. Deustuko Unibertsitateko Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutuko Gorka Urrutia Asua, Trinidad L. Vicente eta Asier Martínez de Bringas ikertzaileek egin dute atal honetan aurkezten dugun ikerlana.

EAeko erlijioen ezaugarritzea

Ane Estebaranz Delgado

Julia Shershneva

Ikuspegi – Immigrazioaren Euskal Behatokia

Bere osaera sozio-erlijiosoari dagokion aldetik, Euskadi oso nabarmen aldatu da azken hamarkadetan: gaur egun erlijio-aniztasun handia dugu gurean, garai bateko gehiengo katolikoa atzean utzita. Fenomeno hori bere-berea dute Europano gaur egungo demokrazia guztiek, eta Espainiako Estatuaren ere prozesua orokorra da, gure gizarteetako identitate-aniztasunaren eta pluraltasunaren aitortza adierazten duen aldetik. Erlijio-askatasunari, zehazki, garrantzi berezia eta legezko aitortza ematen zaizkio. Demokrazietan, pertsona aske gisa bizi-izeak berekin dakar norberaren identitatea adierazteko gai izatea, eta tartean da erlijio-askatasuna ere.

Erlilio-sinesmenen legezko aitortzak zenbait etapa izan ditu. Hasieran, 1978tik 1982ra bitartean, funts-funtsezko aldaketa normatiboak egin ziren, eta horrek erlijio-askatasunaren aitortzarako oinarriak jarri zituen. 1978ko Konstituzioaren 16. artikuluak, Espainia estatu akonfesionala zela dekretatu, eta Estatuaren eta Eliza katolikoaren arteko lankidetza sustatu zuen zehazki, baina baita Estatuaren eta gainerako erlijio-sinesmenen artekoa ere. Geroago, 1992. urte inguruan, aldaketa normatibo-politiko adierazgarriak egin ziren aniztasuna areagotzeko – hala esan zitzaison orduan–, eta Estatuak lankidetza-hitzarmenak sinatu zituen Espainian errotuen zeuden erlijio-sinesmen minoritarioekin (Euskadin, ebanjelikoekin eta musulmanekin). XXI. mendearren hasierakoa da hirugarren fasea, ordurako Estatuaren erroak boteak zitzuten beste lau erlijio-sinesmen aitortu ziren garaikoa. Gainera, Pluralismo y Convivencia fundazioa ere orduantxe sortu zen, eta horrek Estatuko erlijio-aniztasunaren aitortza sendotzea ekarri zuen. Autonomia-erkidego batzuek, hala nola Euskadik, aurrera egin dute erlijio-aniztasunaren kudeaketa publikoan, batez ere azken urteetan, XXI. mendearren bigarren hamarkadaz geroztik.

Hitz batean, Espainiako Estatuan izan diren aldaketa normatibo eta instituzionalek –erlilio-askatasunaren aitortzak eta katolizismoaz bestelako erlilio-sinesmenen onarpenak, zehatz esatera— garrantzi itzela izan dute Estatua, eta baita Euskadi ere, Europako gainerako demokraziekin parekatzeko oinarrizko eskubideei dagokienez.

Aipatutako aldaketa sozio-erlijiosoez gain, euskal gizartea erlilio-kontuetan bere burua identifikatzen duen modua ere aldatu egin da azken hamarkadetan. Euskal gizartearren erlilio-autoidentifikazioaren berri jakiteko, bi iturri erabili ditugu: alde batetik, Eusko Jaurlaritzako Prospeko Soziologiko Kabinetek egiten duen Euskal Soziometroa¹, tartean behin auziari buruzko galderak egiten dituena; eta, bestetik, Ikuspegik egiten duen Neurtu inkestaren datuak², kolektibo minoritario zehatzen bazterkeria-pertzepzioa neurtzen duena urtero, eta bere azken edizioan, 2023koan, erlilio-aniztasunean zentratu zena.

Euskal Soziometroan jasotzen diren datuak aztertuz gero, argi ikus daiteke fede katolikoarekiko identifikazio-maila asko jaitsi zela 1980ko hamarkadaz geroztik –1. grafikoa—. Ildo berean, begi-bistakoa da orobat sinestunak ez direnen kopuruak nabarmen egin duela gora. 1987an, zehazki, euskal herritarren % 81ek identifikatzen zuen bere burua katoliko gisa, eta % 17k, berriz, ez zeukan bere burua erlijiosotzat. 2022an, aldiz, sinestunak ez ziren kopurua % 40raino igo zen, eta % 55ek identifikatzen zuen bere burua katoliko gisa. Azkenik, 2023ko Neurtu inkestaren arabera, urte horretan katolikoek nagusi izateari utzi zioten (% 43,6), eta sinesgabean kopurua, berriz, areago igo zen (% 50,2), gizartearren sekularizazio-prozesuaren ondorioz inondik ere.

Erlilio-aniztasunari dagokionez, katolizismoaz bestelako erlilioek lehen baino presentzia handixeagoa dute gaur egun; izan ere, 1987an, Euskadin erlilio minoritarioren batean sinesten zutenen kopurua % 1 baino ez zen (Euskal Soziometroaren arabera), eta 2023an, berriz, kopuru hori % 5,8raino igo zen (2023ko Neurtu inkestaren arabera). Euskadik beti izan du erlilio-aniztasuna, baina 2012az geroztik askoz modu nabarmenagoan, batez ere nazioarteko imigrazioaren ondorioz. Atzerritik gurera gero eta jende gehiago etorri izanaren ondorioz, erlilio-sinesmen eta -praktika berriak areagotu egin dira gure gizartearen, eta lehendik zeudenak, berriz, sendotu.


Hala, jatorriz latinoamerikarrak diren herritarrek kristautzat daukate beren burua nagusiki –katoliko zein ebanjelikotzat—; Magrebti etorritako gehienak musulmanak dira, eta Ekialdeko Europatik etorritakoak, berriz, kristau ortodoxoak. Immigrante gehienak Euskadin erlilioarekin gaur egun duguna baino lotura handiagoa duten herrialdeetatik etorri izanak, hain zuzen, nolabaite-

¹ Prospeko Soziologiko Kabinetea-Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza (zenbait soziometro: 1987koa, 1997koa, 2007koa, 2012koa, 2017koa, 2022koa).

² Ikuspegij, 2024b.

ko aupada eman dio gurean gaur egun nagusi diren sinesmen-aniztasun eta erlijiositate-dinamikei.

1. grafikoa. Euskal herritarren autoidentifikazio sozio-erlijiosoaren bilakaera, 1987-2023.



Iturria: geuk egina, Euskal Soziometroan (zenbait soziometro: 1987-2022) eta Neurtu 2023 inkestan oinarrituta.*

EAeko erlijioen mapa soziologikoa

EAeko erlijio-aniztasunaren ezaugarriak azaltzen hasteko, euskal herritarren erlijiozaletasunari buruz aztertutako datuez gain, erlijio bakoitzak Euskadin zer-nolako presentzia duen ere jakin nahi izan dugu xehekiago. Horretarako, 2019an egindako Euskadiko Erlijioen Mapa Soziologikoa egunerautu dugu 2022ko datuekin³. Mapa horren bidez, Euskadiko erlijio-sinesmenen geografia soziala ezagutzea eta sinesmen bakoitzak EAEn duen pisu kuantitatiboa kalkulatzea da asmoa. Sinesmenek gurean duten pisua kalkulatzen du mapak ehune-kotan, bigarren mailako iturriak abiapuntutzat hartuta.

Lehenik eta behin, datuak kalkulatzeko erabili dugun metodologia azalduko dugu; gero, haren bidez lortutako datuak aurkeztuko ditugu, bai eta 2019ko kalkuluaz geroztiko datuen bilakaera ere; eta, azkenik, datuak aztertuko ditugu, baina EAeko hiru hiriburuetara aplikatuta.

³ Moreno eta Urrutia, 2023.

Metodologia

Lan honetan lortutako datuak aztertzen hasi baino lehen, uste dugu garrantzi-tsua dela zenbait ohar metodologiko egitea, bai ondoren aurkeztuko ditugun datuak eta bai haien jatorria hobeto ulertzeko.

Horretarako, Euskadin presentzia duten erlijioen pisuaz Ikuspegik 2019an egin-dako kalkuluak eguneratu ditugu. Nolanahi ere, iturri estatistikoen eguneraketak kalkulua egokitzena behartu gaitu, ahalik eta informazio zehatzena eman nahi baikenuen. Hemen azalduko ditugun datuak zenbait iturri estatistiko erabiliz egindako kalkulu batean oinarritzen dira. Hemen darabiltzagunak ez dira erroldatuak, eta, hortaz, ez dute egoeraren argazki argiegirik ematen, baina Euskadin erlijio-aniztasunak duen errealtatera hurbiltzeko balioko digute behinik behin.

Esan dugun bezala, Euskadin beti izan dugu erlijio-aniztasuna, baina, hala ere, aniztasun horren zati handi bat nazioarteko migrazioei zor zaiela kontuan har-tuta, erlijio nagusien pisua herrialdeka aztertzen dituzten datuei buruzko iturri bibliografiko fidagarriak erabili ditugu. Horren bidez, izan ere, munduko herrialde bakotzean presentzia duten erlijioen ehunekoei buruzko datuak estrapolatu ahalko ditugu EAEn bizi diren atzerritar jatorriko herritarretara, haien sorterria aintzat hartuta.

Hori egiteko, hiru iturri aukeratuko dira, datu kontrastatuak edukitzeko eta, aldi berean, iturri batzuetan zenbait kasutan sumatutako hutsuneak betetzeko. Lehenik, CIA Factbook argitalpeneko datuak erabili ditugu⁴; zenbait herrialde-ren kasuan, iturri horrek 2022ra arte eguneratutako datuak ematen ditu, bai eta erlijio minoritarioei eta/edo oso herrialde konkretuetara mugatutako erlijioei buruzko informazioa ere.

Bigarrenik, Pew Research Center-ek emandako datuak ere erabili ditugu⁵, au-rreneko iturriaren bitartez lortutako informazioa osatze aldera. Ikerketa-zentro horrek datu xehe-xeheak eman ohi ditu, baina, hala ere, jendearen eskura jarri-tako behin betiko azken datuak 2010ekoak dira, ez dira kristautasunaren barruko kredoak bereizten eta mundu mailan hain hedapen handia ez duten erlijioei buruzko informazio gutxi ematen du.

Azkenik, Espainiako Estatuan jaiotako herritarrei dagokienez -eta hortxe daude Euskadiko bizilagun gehientsuenak-, Ikerketa Soziologikoen Zentroak (CIS) bere Barometroaren 2022ko urtarileko 3347. zenbakian Espainiako Estatuarri buruz emandako datuak erabili ditugu, horixe baita estatu mailako informazio eguneratuena eta zehatzena ematen duen iturria.

⁴ CIA. The World Factbook [2023ko abenduan konsultatua].

⁵ Pew Research Center, 2012.

Behin erlijio bakoitzak herrialdez herrialde duen pisu portzentuala zehatzugero, Estatistika Institutu Nazionalak (INE) 2022ko urtarrilaren 1ean eskainitako EAeko Biztanleria Errrola Jarraituko datuak hartu⁶, eta herrialde bakoitzari dagozkion ehunekoak Euskadin erroldatutako herritarrei aplikatu zaizkie, haien jatorria aintzat hartuta.

EAeko erlijioen geografia soziala

Erlilio bakoitzak Euskadin duen pisuari buruz eskuratutako datuetara etorrita, nabarmentzekoa da erlijio-sinesmenak bi modutan bereizi ditugula, datu horiek ahalik eta ondoen eta zehatzen aztertzeko balio dezakeelakoan: batetik, EAeko bizilagun guztien gain duten pisuaren arabera, eta, bestetik, gurean bizi diren biztanle atzerritarren gain duten pisuaren arabera. Berriz esan beharra dago erlijio-aniztasuna gure gizarteko erlijio-fenomenoaren parte dela, eta ez bakarrik atzerritik hona etorrakoek ekarritako zerbaite. Nolanahi ere, datuak goraxeago adierazi bezala bereizi izanak modua eman digu aztertzeko nola eragiten dion nazioarteko migrazioen etorrerak erlijioen areagotze- eta dibertsifikatze-prozesu horri.

Gure kalkuluen arabera, 2022an, euskal herritarren % 35,5 (756.595 lagun) erlijiorik ez zuten sinesgabeak ziren (ateoak, agnostikoak edo ez-sinestunak) –1. taula–. Bestalde, erlijio katolikoa nagusi da EAEn: euskal herritarren % 57,2k katolikotzat dauka bere burua, hau da, milioi bat lagun pasatxo (1.232.586). Tarte handia dago katolizmoaren eta gurean garrantzi gutxi-asko handia duten gainerako erlijioen artean: euskal herritarren % 4 (85.645 lagun) musulmanak dira; % 1,1 (24.533 lagun), ebanjelikoak edo protestanteak; eta % 1 (21.048 lagun), ortodoxoak. Azken hiru kasuei dagokienez, erlijio horiek Euskadin historikoki izan dutena baino garrantzi nabarmen handiagoa duten herrialdeetatik gurera iritsitako atzerritar jatorriko biztanleen etorrerak esplikatzen ditu kopuru horiek.

⁶ INEk Biztanleria Errrola Jarraituarekin lotuta egindako metodologia-aldaketaren ondorioz, 2022ko urtarrilaren 1eko datuak erabiltzea erabili dugu, eguneraketa-maila handieneko datuak direlako batetik, eta helburua aurreko edizioan erabilitako iturri berak erabiltzea zelako bestetik.

**1. taula. Erlilio-sinesmen bakoitzak Euskadin duen pisuaren kalkulua
(datu absolutuak eta ehunekoak), 2022**

	Biztanleak, guztira		Atzerritar jatorriko biztanleak	
	Kop.	%	Kop.	%
Euskadi, guztira	2.154.477	100,0	249.098	100,0
Katolikoak	1.232.586	57,2	106.947	42,9
Ebanjelikoak edo protestanteak	24.533	1,1	24.533	9,8
Ortodoxoak	21.048	1,0	21.048	8,4
Beste kristau batzuk	12.775	0,6	12.775	5,1
Jehovaren lekuokoak	4.606	0,2	292	0,1
Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Eliza	1.869	0,1	175	0,1
Musulmanak	85.645	4,0	44.606	17,9
Juduak	2.264	0,1	310	0,1
Hinduistak	640	0,0	640	0,3
Budistak	1.611	0,1	1.611	0,6
Animistak eta erlijio tradizionalak	4.376	0,2	4.376	1,8
Beste erlijio batzuk	3.109	0,1	3.109	1,2
Ez-sinestunak	765.595	35,5	28.849	11,6

Iturria: geuk egina, INEren, CIA Factbook-en, Pew Research Center-en eta CISen datuetan oinarrituta.

Atzerritar jatorriko biztanleei buruzko datuak soilik hartzen baditugu aintzat, argi ikus daiteke aldeak daudela haien eta biztanleria osoaren artean, eta, beraz, baita haien eta bertako biztanleen artean ere. EAEn bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen artean erlijio katolikoak nagusi izaten jarraitzen badu ere, oro har gutxiago dira: kolektibo horren % 42,2 (106.947 lagun). Latinoamerikar jatorriko herritarrek Euskadin duten pisu handia da horren arrazoia; izan ere, 2022ko urtarrilaren 1eko datuen arabera, gurean bizi diren atzerritarren % 52 dira latinoamerikarrak.

Beste erlijio batzuek, aldiz, presentzia handiagoa dute; esate baterako, atzerritar jatorriko biztanleen % 17,9 (44.606 lagun) musulmanak dira; % 9,8 (24.533 lagun), ebanjelikoak edo protestanteak; eta % 8,4 (21.048 lagun), ortodoxoak. Gainerako erlijioak ere minoritarioak dira atzerritar jatorriko biztanleen artean. Azkenik, esan beharra dago sinestunak gehiago direla atzerritar jatorriko biztanleen artean gainerakoentzako artean baino: aurreneko kolektiboan, ez-sinestunak % 11,6 baino ez dira; bigarrengoa, berriz, % 35,5.


Horrenbestez, Euskadi gizarte nabarmen katolikoa da, eta gainerako erlijio-sinesmenen pisua askoz apalagoa da. Nahiz eta, behin eta berriz esan dugunez, immigrazioa ez den erlijio-anitzasunaren eragile bakarra, argi ikusten da gurean fenomeno hori estu lotuta dagoela immigranteen etorrerarekin, horrek, batetik, anitzasuna areagotzen lagundi baitu, eta, bestetik, katolizismoaz bestelako erlijioek gaur egun lehen baino pisu kuantitatibo handiagoa izatea eragin.

EAeko erlijioen maparen bilakaera

Euskadiko erlijio-sinesmenen banaketari buruzko 2022ko datuak 2019koekin alderatuz gero, bien artean alde nabarmenik ez egotea da aipagarriena. Aurreko balioespenean bezala, erlijio katolikoak nagusi izaten jarraitzen du oraindik ere; bigarren postuan, sinesmenik ez dutenen multzoa dago, eta gainerako erlijioak minoritarioak dira –2. grafikoa-. Dena den, aldeak ere badaude.

Biztanleria orokorrari dagokionez, lehenik eta behin, esan dezagun batere erlijiorik ez duten sinesgabean kopuruak oso nabarmen egin duela gora 2019tik 2022ra bitartean; +11,6 puntu, zehatz esatera. Aitzitik, erlijio katolikoko fededunen kopuruak behera egin du, eta oso modu aipagarrian gainera: -11,9 puntu. Gainerako erlijio-sinesmenen pisuak eutsi egin dio, gutxi-asko, aztergai hartutako urte-tartean.

2. grafikoa: Erlijio-sinesmen bakoitzak Euskadiko biztanleria osoaren gain duen pisuari buruz egindako kalkuluen bilakaera (%), 2019-2022.




Iturria: geuk egina, INERen, CIA Factbook-en, Pew Research Center-en eta CISen datuetan oinarrituta.

EAEn bizi diren atzerritar jatorriko herritarrei dagokienez, biztanleria osoari dagokionez bezala, banaketa orokorra berdintsua da aztergai hartutako urte-tartean. Aurreko biztanle multzoari buruz esandakoaren ildo beretik, atzerritar jatorriko biztanleen artean ere ez-sinestunen kopuruak gora egin du 2019. urteaz gerotzik, baina neurri apalagoan (+2,5 puntu). Era berean, erlilio katoliko-ko sinestunen kopuruak behera egin du pixka bat: -2,0 puntu. Bestalde, musulmanen pisu bai erlatiboak eta bai absolutuak oso nabarmen egin du behera 2019az gerotzik; atzerritar jatorriko biztanleen kasuan, zehazki, pisu hori -4,5 puntu jaitsi da. Hori dela eta, azpimarratzeko da balitekeela metodologiari dagozkion aldaketa txiki batzuk izatea neurri batean kalkuluaren sumatzen diren gorabeheretako batzuen eragileak, baina erlilio-sinesmenen osaerak migratzai-leen jatorriarekin duen lotura estuak ere badu zerikusia horretan, eta, alde ho-rretatik, datuak desberdinak dira migrazio-sarreren eta -irteeren arabera.

Hitz batean, Euskadiko erlilio-sinesmenen banaketari buruzko 2022ko datuak 2019koekin alderatuz gero, hiru datu nabarmendu daitezke: erlilio katolikoaren pisuak behera egin duela, ez-sinestun gehiago daudela eta musulmanen kopuruak gora egin duela (bai kopuru absolutuak eta bai ehunekoak).

3. grafikoa: Erlilio-sinesmen bakoitzak Euskadin bizi diren atzerritar jatorriko herritarren gain duen pisuari buruz egindako kalkuluen bilakaera (%), 2019-2022.



Iturria: geuk egina, INEren, CIA Factbook-en, Pew Research Center-en eta CISen datuetan oinarrituta.

Erlilio-aniztasuna euskal hiriburuetan

INEren Biztanleria Erroldako datuak erabili ditugunez, EAErako egin dugun es-trapolazioa Lurralte Historikoetako datuak eta udalerrikoetakoak aztertzeko ere erabil daiteke, baina ez erkidego osorako egin dugun azterketaren xeheta-sun-mailarekin. Nolanahi ere, halako azterketak egitea oso baliagarritzat dau-kagu, datuak udalerriz udalerriz bereizita eta begiak hiru euskal hiriburuetan ipi-

nita, horrek beste udalerri batzuetako dinamikak eta joerak hein handi batean esplikatzeko balio duen errealtitatea ikusarazten baitigu. Hortaz, atal honetan lurralte mailako ezaugarri nagusiak nabarmenduko ditugu, egoera udalerriz udalerri zein den aztertzen hasi gabe⁷.

2. taulan ikus daitekeenez, euskal hiriburueta erlijio-sinesmenei buruzko datuek Euskadiko ildo orokorrari jarraitzen diote, ñabardura gutxi batzuk salbuetsita. Alde nagusien artean, aipagarria da musulmanek pisu handiagoa dutela Gasteizen Euskadin batez beste dutena baino: 2022an, gasteitztarren % 6,3 ziren musulmanak; Euskadi osoan, berriz, herritarren % 4, Magrebtarrek eta Afrikako gainerako herrialdeetatik gurera etorritakoek Araban Euskadin batez beste dutena baino pisu handiagoa izatea da horren eragilea (Araban, % 31,1; Euskadin, % 21,7). Azkenik, gainerako erlijio-sinesmenen ehunekoa berdintsua da kasu guztietan.

2. taula. Erlilio-sinesmen bakoitzak euskal hiriburueta duen pisuaren kalkulua (%), 2022.

	Vitoria-Gasteiz	Donostia-San Sebastián	Bilbo
Katolikoak	56,5	57,3	57,6
Musulmanak	6,3	3,3	4,4
Ebanjelikoak edo protestanteak	1,0	2,0	1,4
Ortodoxoak	0,8	0,5	0,6
Beste kristau batzuk	1,2	1,2	1,3
Ez-sinestunak	34,2	35,6	34,7
Guztira	100,0	100,0	100,0

Iturria: geuk egina, INEren, CIA Factbook-en, Pew Research Center-en eta CISen datuetan oinarrituta.


Atzerritar jatorriko biztanleen arteko aldeak sakonago eta xeheago aztertzeko aukera ematen digu 4. grafikoak, alde horiek, lehen ere esan dugunez, biztanle multzo hori euskal lurraldean banatuta dagoen moduari baitagozkio batez ere. Hala ere, gogoratu beharra dago 2022ko urtarrilaren 1ean gurean bizi ziren atzerritar jatorriko biztanleak EAEko herritarren % 11,5 zirela⁸, eta, beraz, biztanle multzo horrek eragin-gaitasun mugatu eta ez oso nabarmena duela magnitude orokoren gain.

⁷ Erlilioek Euskadin zer-nolako pisua (absolutua eta portzentuala) duten jakiteko, Ikuspegiren web-orrian dauden datuak kontsulta daitezke.

⁸ 2022ko Biztanleria Erroldako datuak (INE, 2022).

**4. grafikoa. Erlilio-sinesmen bakoitzak euskal hiriburueta duen pisuaren kalkulua.
Atzerritar jatorriko biztanleak (%) 2022.**

■ Katolikoak ■ Musulmanak ■ Ebanjelikoak edo protestanteak ■ Ortodoxoak ■ Beste kristau batzuk ■ Ez-sinestunak



Iturria: geuk egina, INEren, CIA Factbook-en, Pew Research Center-en eta CISen datuetan oinarrituta.

Erlilio-sinesmen bakoitzak EAeko hiru hiriburueta bizi diren atzerritar jatorriko biztanleen artean zer-nolako pisua duen erakusten du aipatutako grafikoak. Hartan ikus daitekeenez, atzerritar jatorriko biztanleen arteko aldeak handiagoak dira erlilio bakoitzeko fededunen ehunekoei dagokienez; izan ere, horren arrazoi nagusia aipatzearren esanda, biztanle multzo horren jatorria zein den, haien artean nagusi den erlilio-sinesmena aldatu egiten da, atzerritar jatorriko biztanleen banaketa jatorrizko eremu geografikoen arabera aztertzen duen 5. grafikoan antzeman daitekeen bezala.

**5. grafikoa. Euskal hiriburueta bizi diren atzerritar jatorriko biztanleak,
haien jatorrizko eremu geografikoen arabera (%) 2022.**

■ Latinoamerika ■ Magreb ■ Europar Batasuna 27 ■ Gainer. Afrika ■ Asia ■ Gainer. Europa ■ Gainerakoak



Iturria: geuk egina, INEren datuetan oinarrituta.

Gasteizen, adibidez, herritar katolikoen pisua (% 41,9) txikiagoa da beste bi hiriburueta baino, eta musulmanek, berriz, pisu handia dute (% 29,9). Kasu honetan ere esplikazioa goraxeago azaldutakoaren ildotik doa: Euskadiko batezbestekoaren aldean, Gasteizen afrikar jatorriko biztanle gehiago bizi dira (batez ere magrebtarrok, baina baita Saharaz hegoaldeko afrikarrak ere), eta, horren ondorioz, Gasteizen musulmanak gehiago dira beste bi hiriburueta baino.

Bilbon eta batik bat Donostian, ordea, musulmanen kopurua apalagoa da: % 18 eta % 11,1, hurrenez hurren. Katolikoak, aldiz, gehiago dira, latinoamerikar jatorriko biztanleek pisu handiagoa baitute batean zein bestean. Aipagarria da, halaber, ebanjeliko edo protestanteek Donostian duten pisu portzentuala (% 15,6), beste bi hiriburueta dutena baino handiagoa baita.

Laburbilduz, hiru hiriburuei dagozkien datuak aztertuta erraz asko ikus daitekeenez, Euskadiko erlijio-anitzasuna estu-estu lotuta dago gurean bizi diren atzerritar jatorriko herritarrekin, bai eta nazioarteko migrazioek azken hamarkadetan izan duten gorakadarekin ere, baina horren guztiaren inpaktu, dena den, erlatiboa da, kolektibo horrek biztanleria osoaren gain duen pisuaren ondorioz.

Erlilio minoritarioen kultu-lekuak EAEn

Erlilioen erradiografia soziologikoaz gain, katolizismoaz bestelako erlijioek Euskadin dituzten kultu-lekuei buruzko nondik norakoak ere azaldu nahi izan ditugu, Espainiako Erlilio Anitzasunaren Behatokiak Kultu Lekuen Direktorioaren bitartez eskaintzen dituen datuetan oinarrituta. Aurreko atalean erlijio-sinesmenen pisuari buruz aurkeztutako kalkuluarekin egin dugun bezala, oraingoan ere kultu-lekuen kokapenari buruzko informazio orokorra eta erlijio-sinesmenen araberako banaketa tartekatuko ditugu⁹.

Euskadi osoan, 2024ko urtarrileko datuen arabera, katolizismoaz bestelako erlijioetako 301 kultu-leku daude -3. taula-. Katolizismoaz bestelako erlijioetako kultu-leku gehien dituzten lurralte historiokoetan dagokienez, Bizkaia da lehena (148), Gipuzkoa bigarrena (97) eta Araba hirugarrena (56). Argi ikus daitekeenez, lurralte bakoitzeko kultu-lekuen kopurua zuzen-zuzenean lotuta dago probintzia horretako biztanleriaren kopuru absolutuarekin.

Erlilio-sinesmen bakoitzari dagokionez, ebanjeliko edo protestanteek dute Euskadin kultu-leku gehien (147 eliza); musulmanak dira bigarrenak (83 meskita¹⁰), eta Jehovaren lekuak hirugarrenak (Erreinuaren 33 areto)¹¹.

⁹ Euskadin udalerri bakoitzeko zenbat kultu-leku dauden jakiteko, Ikuspegiren web-orrian dauden datuak kontsulta daitezke.

¹⁰ Meskita diogunean, edozein kultu-leku musulmani buruz ari gara.

¹¹ Ez daukagu daturik kultu-lekuen tamainari buruz, eta, beraz, kultu-leku kopuruak ez dauka zertan zuzeneko loturariik izan haietako bakoitzari dagokion erlijioaren jarraitzaile kopuruarekin.

**3. taula. Euskadiko erlilio minoritarioen kultu-lekuak lurralte historiko bakoitzean
(kopuru absolutuak), 2024.**


	EAE, guztira	Araba	Gipuzkoa	Bizkaia
Ebanjelikoak (elizak)	147	25	40	82
Ortodoxoak (elizak)	13	3	5	5
Jehovaren lekuoak (Erreinuaren aretoak)	33	2	12	19
Azken Eguneñako Santuen Jesu Kristoren Eliza	4	1	1	2
Musulmanak (meskitak)	83	21	31	31
Budistak (tenpluak)	10	1	5	4
Beste erlilio batzuk	11	3	3	5
Guztira	301	56	97	148

Iturria: geuk egina, INEren, CIA Factbook-en eta CISen datuetan oinarrituta.

Erlilio minoritario bakoitzaren kultu-lekuen banaketari dagokionez (probintzia-ka eta ehunekotan), Bizkaian dauden kultu-lekuen ehunekoa nabarmen han-diagoa da (% 55,4) EAEn batez beste daudenena (% 48,8) eta batez ere Gipuzkoakoan daudenena baino (% 41,2) –6. grafikoa-. Araban, aldiz, meskiten ehunekoa (% 37,5) askoz handiagoa da Euskadin batez beste daudenena (% 27,6) eta Bizkaian daudenena baino (% 20,9). Atzera ere 2. grafikora eterrita, erlilio-sinesmen bakoitzak euskal hiriburueta duen pisuari buruzko grafiko horrek ondo erakusten du kultu-lekuen kopuruak zuzeneko lotura duela erlilio bakoitzak hiru lurralte historikoetan dituen jarraitzaileen gutxi gorabeherako ehunekoarekin, eta horrek, era berean, eskualde jakinetatik hona migratutako komunitateen presentziarekin duela zerikusia.

Erlilioen probintziakako banaketan sumatutako aldeei dagokienez, nabarmen-tzekoa da Jehovaren lekuoak Araban dituzten aretoen ehunekoa (% 3,6) askoz apalagoa dela EAEn batez beste dituztenena baino (% 11). Gainerako erlilioek, ordea, antzeko pisua dute hiru lurralte historikoetan.

**6. grafikoa. Euskadiko erlijio minoritarioen kultu-lekuak
lurralde historiko bakoitzean (%), 2024.**



Iturria: geuk egina, Espainiako Erlilio Aniztasunaren Behatokiaren datuetan oinarrituta.

Erlilio minoritario bakoitzak 2024an gurean dituen kultu-lekuen kopurua 2019ko datuekin alderatuz gero, argi ikusten da argazkia paretsukoa dela, eta ez dela gorabehera handiegirik izan erlijio bakoitzaren kultu-lekuen kopuruari dagokionez —4. taula—. Datuak nabarmentzen hasita, bi gorakada dira aipagarriak: eliza ebanjelikoena (130, 2019an; 147, 2024an) eta meskitena (78, 2019an; 83, 2024an).

4. taula. Erlilio minoritarioen kultu-lekuek duten pisuaren bilakaera (kopuru absolutuak), 2019-2024.


	2019	2024
Ebanjelikoak (elizak)	130	147
Ortodoxoak (elizak)	14	13
Jehovaren lekuoak (Erreinuaren aretoak)	34	33
Azken Egunetako Santuen Jesu Kristoren Eliza	4	4
Musulmanak (meskitak)	78	83
Budistak (tenpluak)	10	10
Beste erlijio batzuk	8	11
Guztira	278	301

Iturria: geuk egina, Espainiako Erlilio Aniztasunaren Behatokiaren datuetan oinarrituta.

Kultu-lekuek probintzien azpitiko lurralte mailan zer-nolako presentzia duten aztertzen ahalegintze aldera, hiru erlijio nagusiek EAeko eskualde bakoitzean zenbat kultu-leku (eliza ebanjeliko, meskita eta Jehovaren lekukoen areto) dituzten azalduko dugu hemen beheko taulen bidez. Hiru taulak batera hartuta, argi ikusten da euskal hiriburuak barnean dituzten eskualdeetan dutela hiru erlijio nagusiek kultu-leku gehien (biztanle-dentsitate osoa aintzat hartuta): Bilbo Handian, Arabako Lautadan eta Donostialdean, alegia.

Eliza ebanjelikoei dagokienez, eta probintziaka egindako azterketan azaldutakoaren ildo berean, Bilbo Handian eliza gehiago daude Arabako Lautadan eta Donostialdean baino. Eliza ebanjeliko gehien duten eskualdeen artean, Gernika-Bermeo, Bidasoa Beherea eta Goierri dira hurrenak, hamarna eliza baino gutxiagorekin. Bestalde, aipatutako erlijio horiek batere kultu-lekurik ez duten eskualdeak ere badaude (biztanle gutxi dituztenak, zehatz esatera).


1. mapa. Euskadiko eliza ebanjeliko kopurua eskualdeka (kopuru absolutuak), 2024.



Iturria: geuk egina, Espainiako Erlilio Aniztasunaren Behatokiaren datuetan oinarrituta.

Meskitei dagokienez, Bilbo Handian eta Arabako Lautadan halakoak gehiago dira gainerako eskualdeetan baino; 18 eta 16 meskita daude bakoitzean, hurrenez hurren. Donostialdean, aldiz, Gipuzkoako hiriburua bertan egon arren, askoz biztanle gutxiagoko eskualdeetan (Debabarrenan, Debagoienan eta Goierrin, Gipuzkoan, eta Durangaldean, Bizkaian) adina meskita daude gutxi gorabehera.


2. mapa. Euskadiko meskiten kopurua eskualdeka (kopuru absolutuak), 2024.



Iturria: geuk egina, Espainiako Erlijo Aniztasunaren Behatokiaren datuetan oinarrituta.

Euskadin kultu-leku gehien duten erlijioei dagokienez, Jehovaren leukoak hirugarren postuan daude; Bilbo Handian daude Erreinuaren areto gehien, gainera-ko euskal hiriburuen gainetik. Arabako Lautadan, ordea, Erreinuaren areto baka-rra dago, biztanle gutxiago dituzten Bizkaiko Durangaldean, Gernika-Bermeon eta Plentzia-Mungian eta Gipuzkoako Goierrin eta Urola Kostan baino gutxiago.

3. mapa. Jehovaren leukoek Euskadin dituzten Erreinuaren aretoen kopurua eskualdeka (kopuru absolutuak), 2024.



Iturria: geuk egina, Espainiako Erlilio Aniztasunaren Behatokiaren datuetan oinarrituta.

Aurreko atalean esandakoaren ildo berean, aipatzeko da kultu-lekuuen kopuruak sarritan lotura duela eskualde bakotzeko biztanleen jatorriarekin, hala nola latinoamerikarrena eliza ebanjelikoekin, magrehtarrena kultu-leku islamia-rekin eta erlijio minoritario batzuen jarraitzaileena erlijio horiek gurean dituzten kultu-lekuekin.

Erlilio-aniztasunaren kudeaketa publikoa eta erlilio-gutxiengoen egoera Euskadin

Gorka Urrutia Asua

Trinidad L. Vicente Torrado

Asier Martínez de Bringas

Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. Deustuko Unibertsitatea

Abiapuntua. Erlilio-aniztasunaren aldaketa sozial eta sendotze-prozesua Euskadin

Gure aztergaia testuinguruan jartzeko atalean adierazi dugun bezala, Euskal diko errealitate sozio-erlijiosoak aldatu egin da azken hamarkadetan. Beste lan batzuek ere eman dute aldaketa horien berri (Ruiz Vieytes, 2010; Moreno eta Urrutia, 2023), baina esan dezagun eragileak bi izan direla nagusiki: batetik, gaur egungo demokraziaren bilakaera normatiboa, eta, bestetik, izatez sozio-logikoagoak diren dinamikak. Bi eragile horien arteko konbinazioaren ondorioz, gure lurraldoko hainbat udalerritan katolizismoaz bestelako erlijioen presentzia zabalduz joan da pixkanaka-pixkanaka azken hamarkaden joanean. Erlilio minoritarioek beren elizak, elkartea eta erakundeak han-hemenka ezarri ahala, jakina, erlilio horien jarraitzaile kopuruak eta kultu-lekuek ere gora egin dute, eta horrek euskal errealitatea aberastu du bere alderdi sozio-erlijiosoiei dagokienez. Errealitate hori sendotzeak, izan ere, areago nabarmenarazi du gure gizarteko erlilio-aniztasuna, eta hori toki-esparruan igarri da gehien, gizakiok hortxe bizi eta garatzen baikara gehienbat, eta hortxe baitauzkagu harremanak gainerako herrikideekin.

Eliza eta elkarteko horien jarraitzaileen arteko harremanek edo fede-bizipenek (erlilio- eta kultu-askatasunak) eragin ohi dituzten egoerak gobernatu beharrak ondorioak ditu kudeaketa publikoaren esparruan, bai erkidego mailan eta bai udalerri mailan. Azken urteetan, bai Eusko Jaurlaritzak eta bai udalek askotan egin behar izan diete aurre halako egoerekin lotutako hainbat auziri. 2015. urtean, zehazki, erlilio-aniztasuna modu positiboan kudeatze aldera Eusko Jaurlaritzaren ekimenez egin zen txosten batean ere ematen zen auzi horietako batzuen berri, eta gutxi-asko berria zen errealtitate hori kudeatzeko proposamen zehatzak eskaintzen ziren¹². Erkidegoei eta udalei dagozkien eskumenei buruzko alderdiak aipatzen zituen txosten horrek, gure lurraldean ezarprena duten erlilioen behar eta eskaerei heltzea ahalbidetzen zutenak. Horri dagokionez, aurrerago ikusiko dugun bezala, egoerak aurrera egin du hainbat arlotan.

Aniztasunaren kudeaketarekin lotuta botere publikoek berriki martxan jarritako ekimenetako bat EAeko aniztasunari buruzko Neurtu barometroa da. Adierazle horren xedea euskal herritarrek aniztasunaz dituzten iritzi, pertzepzio eta jarrerei buruzko informazio demoskopikoa lortzea da, eta denetariko esparru eta errealtitate sozialak ditu aztergai: immigrazioa, sexu- eta genero-aniztasuna, ijitoak eta erlilio-aniztasuna, besteak beste. 2023ko barometroak, hain zuzen, erlilio-aniztasunaren inguruan galdetu zien herritarrei. 2023ko Neurturen ikuspegia kuantitatiboa zen nagusiki¹³, eta gure lanak ikuspegi hori nolabait osatu nahi du, Euskadiko erlilio minoritarioen errealtitatearekin lotutako alderditan zentratuta. Aurreko atalean ere esan dugunez, argitalpen horretan informazio kuantitatiboa ugari ematen da; esate baterako, euskal gizartearen osaera sozio-erlijiosoa xehatzen da, bai eta erlilio minoritarioetako elizen, elkarteen eta erlilio-erakundeen kokapen eta banaketa ere (haien kultu-lekuek gure lurraldean duten ezarprena, alegia). Deskribapen hori osatze aldera, gure lanak informazio kualitatiboa emango du xehe-xehe, erlilio-sinesmen horien jarraitzaileek beren erlilio-askatasuna praktikan jartzen duten moduarekin lotutako alderdiak eta horren kudeaketa publikoarekin lotutako auziak zehaztuta. EAeko erlilio-gutxiengoen errealtitateari, koordinazioari eta aitortzari buruz lehendik egindako lanetan (Ruiz Vieytes, 2011; Urrutia Asua, 2016) oinarritzen da datozen orriean azaltzen eta aztertzen den informazioa.

Labur esanda, aurrez genuen ikuspegia osatzera datozen orri hauek, eta hori bi modutan egiten da: Batetik, gure lurraldeko erlilio-aniztasunarekin lotutako auziak jakitera eman eta aitortze aldera nagusiki erakunde publikoek martxan jarritako ekimenen berri emanet; eta, bestetik, informazio hori Euskadiko erlilio-erakunde ez-katolikoen ikuspegitik planteatutako alderdi garrantzitsuenekin osatzu. Horretarako, erkidego eta udal mailetan (batez ere EAeko hiru hiriburu) erlilio-aniztasunaren kudeaketarekin zerikusia duten auziei erakundeek eman izan dieten erantzuna modu sistematikoan jasotzen dugu datorren azpia-

¹² Bake eta Bizikidetza Idazkaritza Nagusia, 2015.

¹³ Ikuspegi, 2024.

talean. Horren ondoren, hurrengo azpiatalean, erlijio-erakunde ez-katolikoen ikuspegia jasotzen da, erakunde eta elkarte horien behar eta eskariei buruz egin diren ikerketa ugarietan oinarrituta nagusiki, baina baita 2023ko azken hilabeteen joanean egindako lan kualitatibo batean ere, EAEko erlijio minoritarioetako erakundeen ordezkarieei eginiko zenbait elkarritzeta erdigigituratu sakon jasotzen baitira lan horretan¹⁴.

Euskadiko botere publikoak eta erlijio-aniztasunaren kudeaketa: 2009-2023

Azken 15 urteetan izan diren aldaketa soziologikoek bestelako errealtitate sozio-erlijioso bat sortu dute, eta, alde horretatik, tradizio katolikoarekin loturarik ez duten erlijio-erakundeak (eta jarraitzaileak) errotuz, normalduz eta gure errealtitate sozialaren parte bihurtuz joan dira aldez edo moldez. Horren ondorioz, gurean garai batean ezezagunak ziren erlijio-tradizioak hobeto ezagutu beharra eragin du egoerak, eta herritar eta botere publikoen aldetiko aitortza-eskaera gero eta sarriagoei erantzun beharra ere bai.

Testuinguru horretan, eta betiere Pluralismo y Convivencia fundazioak (FPyC) autonomia-erkidegoetako erlijio minoritarioak ikertze aldera (Pluralismo y convivencia bildumaren bidez¹⁵) sustatu eta babestutako lan-ildoaren barruan, Euskadin ezarpena zuten erlijio-gutxiengoei buruzko ikerlana egin zen 2008. eta 2009. urteen artean. Ikerlan horren emaitzen berri eman zuen argitalpenak (Ruiz Vieytes, 2010) FPyCren eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzaren babesia jaso zuen. Ikerlan hori mugarririk gertatu zen erlijio-gutxiengoak ezagutzeko (eta aitortzeko) prozesuan, agenda publikora eraman baitzuen erlijio-aniztasunaren erkidego (eta udal) mailako kudeaketaren auzia, bai eta auzi horrek herritarren aurrean izan behar zuen proiekzioarena ere.

Datozen lerroetan, azken urteen joanean gai horrekin lotuta izan diren gertaera gogoangarrietako batzuk azaldu nahi ditugu, horrek, nolabait ere, erakunde publikoek denbora-tarten horretan martxan jarritako ekimen nagusietako batzuk testuinguruan jartzeko balioko digulakoan. Jarraian, Eusko Jaurlaritzak eta EAEko hiru hiriburuak udalek sustatutako ekimen garrantzitsuenak aipatuko ditugu kronologikoki, erlijio-pluraltasunaren ezagutzarekin eta aitortzarekin estu-estu lotutako gaiak denboraren joanean nola landu diren ikusten lagunduko baitigute.

¹⁴ 1. eranskinean ematen da xehetasun teknikoen berri.

¹⁵ Pluralismo y Convivencia fundazioak argitaratutako bilduma, hemen eskuragarri: <https://www.pluralismoyconvivencia.es/publicaciones/coleccion/colección-pluralismo-y-convivencia/>

Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzak, bere sailen bidez (Osasuna, Kultura, Hezkuntza), denbora luzea darama erlilio-aniztasunarekin lotutako gaiez arduratzen (ospitaleetako osasun-arreta; erlilio-erakunde batzuen telebista-saioak; erlilio-askatasunarekin zerikusia duten arazoen kudeaketa hezkuntza-zentroetan...), baina lan honetan 2008. eta 2009. urteak hartuko ditugu erreferentziatzat, Giza Eskubideen Zuzendaritzak garai horretan hartu baitzuen bere gain erlilio- eta kultu-askatasuna den oinarrizko eskubidea modu integralagoan artikulatu eta lantzeko zeregina. Harrezkero, Giza Eskubideen Zuzendaritzak Euskadiko erlilio-gutxiengoei buruzko ikerketa bultzatu du, eta ikerlan horiek hartu ditu oinarri, nolabait ere, gaiaren inguruko hainbat ekimen martxan jartzeko.

Euskadiko erlilio-gutxiengoen lehen mapa hura argitaratu zenez gero, gatazkak eta protestak piztu ziren auzoetan, zenbait erlilio minoritario beren kultu-lekuak bertan zabaltzen ahalegintzeaz batera. Horiek horrela, IX. legealdiaren joanean (2009-2012), Eusko Jaurlaritzak kultu-lekuei buruzko lege-aurreproiektua abiatu zuen, EAeko udalerriei lege-esparru orokor bat eman eta, besteak beste, udalerri bakoitzak kultu-lekuak irekitzeko ezarriak zituen baldintzak bateratzeko asmoz (batetik bestera aldeak baitzeuden). Legealdia behar baino lehen amaitu eta hauteskundeak aurreratu behar izan zirenez, ez zen lege-aurreproiektua onartzerik izan. Nabarmentzekoa da, halaber, legealdi hartan beste ekimen bat ere jarri zutela martxan, oso garrantzitsua izan zena erlilio-aniztasunaren inguruko errealitate soziala ezagutzeko. Kultu-lekuei buruzko lege-aurreproiektua aurkezteko egindako lanen eremuan, Prospekzio Soziologikoen Kabinetek ikerlan demoskopiko bat egin zuen (2012ko maiatzean) Euskadiko erlilio-aniztasunari buruz¹⁶, eta ikerlan haren bidez, estreinako aldiz aztertu ahal izan genituen, sakan aztertu ere, euskal gizarteak gaiari buruz zituen iritzi eta ikuskerak.

Hurrengo legealdian (2013-2016), Eusko Jaurlaritzak jarraipena eman zien gaia-rekin lotuta aurreratuak zituen ekimenetako batzuei. Bake- eta bizikidetza-planean (2012-2016), adibidez, zenbait lan-proposamen egin ziren erlilio-aniztasunaren kudeaketari buruz. Ekimen horien artean, erlilio-aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txosten baten argitalpena izan zen garrantzitsuenetako bat (2015eko abenduan); Euskadin ezarpena duten erlilio-sinesmenen behar eta eskaerak identifikatzea eta gaieren inguruko kudeaketa publikorako lehentasunak ezartzea zen argitalpenaren asmoa. Txostena 2016ko martxoan aurkeztu eta eztabaidatu zen jendaurrean. 2016ko irailean hauteskunde autonomikoak egin ziren, eta txostenean jasotako ekimen asko atzeratu eta XII. legealdirako utzi behar izan zituzten: kultu-lekuei buruzko lege-aurreproiektua, esate baterako¹⁷.

¹⁶ Prospekzio Soziologikoen Kabinetea-Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza, 2012.

¹⁷ Bake eta Bizikidetza Idazkaritza Nagusia, 2016.

2017an hasi zen kudeaketa publikorako eta Eusko Jaurlaritzarako erronka gisa agertzen erlilio-aniztasunaren auzia, 2017-2020rako Bizikidetza Plana onartzearekin batera. Erronka, baina, bizikidetzarekin eta nazioarteko terrorismoaren arriskuarekin lotzen zen (erlilioarekin lotutako terrorismoarekin), eta bizi-kidetza-erronka sortu berrien arlokotzat jotzen zen, «aniztasunaren kudeaketa positiboa» izeneko azpiatalaren barruan. Plan horretan jasotako ekimenen artean zeuden, besteak beste, islamiar elkarteekin kolaboratzeko batzorde bat sortea (ADOS batzordea¹⁸) eta Euskadiko erlilio-aniztasunaren mapa soziologikoa egitea, gorago ere aipatu dugun bezala. Legealdi amaierako txostenean, erlilio-aniztasunak bere azpiatala zuen¹⁹, eta horrek argi adierazten du gaiak garrantzi handia zuela kudeaketa publikoaz arduratzen zirenentzat.

Azkenik, amaitzen ari den legealdi (2020-2024), Eusko Jaurlaritzak orain arte aipatutako gai guztiak artikulatu ditu Udaberri 2024 ekintza-planaren bidez. Aldi horretan guztian, aniztasuna eta, bereziki, erlilio-aniztasuna areago ezagutzea izan da helburua; horretarako, gorago ere aipatu dugunez, Neurtu izeneko tresaña jarri zen martxan 2023an, EAEn hizpide dugun gaiaz iritzi publikoa zein den aztertzeko asmoz. Kultu-lekuei eta erlilio-aniztasunari buruzko legea onestea ere lortu da legealdi honetan (2023ko ekainean²⁰); besteak beste, «kultu-lekuak edo -zentroak ireki eta erabiltzeari dagokionez», pertsonei «erlilio-askatasunaren oinarrizko eskubidea bermatzea» da legearen xedea, EAE osorako esparru orokor bat onartuz. Gainera, erlilio-aniztasunaren kudeaketarekin lotutako gaiei dagokienez, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetza arloaren web-orrian bertan ere, Euskadiko erlilio-aniztasunari buruzko informazio zehatza jasotzen eta zentralizatzen da²¹, gaiari gune espezifiko bat eskainta.

Udalak

Bestalde, tokian tokikoari lotuago dagoen esparruari dagokionez, azken urteetan hainbat udalek martxan jarritako ekimenak ere lagungarri gertatu dira erlilio-minoritarioetako erlilio-erakundeek gure lurrualdean duten presentzia «normalizuko». Urte hauetako ekimen nagusien berri emango dugu datozen lerroetan, denek ere, aldez edo moldez, erlilio-pluraltasuna agerira ateratzen eta aitortzen lagundu baitute testuinguru honetan. Udalerrri askotan jarri dituzte martxan erlilio-aniztasunaren kudeaketarako neurri eta mekanismoak, baina gu EAEko hiriburuetan egindako lanaren alderdi nabarmenetan zentratuko gara, hiru horie-

¹⁸ ADOS Aholku Batzordeari buruz gehiago jakiteko, jo hona:
<https://www.euskadi.eus/comision-ados/web01-s1lehbak/es/>

¹⁹ Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetza Idazkaritza Nagusia, 2020.

²⁰ EHAA, 2023.

²¹ Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetza Zuzendaritzaren web-orria:
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/bakegintza-bizikidetza/>

tan landu baitute gaia modurik zabalenean, ikuskera kualitatibo batetik landu ere, eta, beraz, haien ereduak ematen baitigu aukerarik onena eliza, erakunde eta erlilio-elkarte ez-katolikoen presentzia ezagutze eta aitortze aldera mamitu-tako ekimen horiek guztiak ikusarazi eta azaltzeko.

Hori dela eta, Bilboko Udalak erlilio-aniztasunari buruzko mahai bat jarri zuen martxan 2011n, eta hori da Bizkaiko hiriburuan bultzatu den ekimenik garrantzitsuena. Ekimenak bi etapa ditu, lehenengoa bertan behera utzi behar izan baitzuten 2017ra arte, kultu-lekuak irekitzeari buruzko araudia kudeatzeko moduak eragindako gatazka baten ondorioz²². Urte horretatik aurrera, behin bigarren etapa hasiz gero, Udalaren eta erlilio-erakundeen arteko topagune garrantzitsu bat sortzea eragin du ekimenak, eta horrek mesede egin dio erlilio-aniztasunaren kudeaketa publikoari. Udaleko eta Bilbon ezarpena duten erlilioe-tako ordezkariek parte hartzen dute topagunean, eta urtero elkartzen dira gaiari buruzko informazio garrantzitsua artikulatzeko eta trukatzeko. Mahaia gai ugari jorratzen ditu, eta alkateak ere parte hartu du saio batzuetan, eta horrek bertan landutako gaiei eta topaguneari berari are garrantzi handiagoa emateko balio izan du²³. Aldian behin elkartzen den topagune horretaz gain, azken urteetan Bilboko eliz eta erlilio-elkarteeek ere oso sarritan kolaboratu dute bai elkarrekin eta bai Udalarekin ere, eta jendaurrean udalerriko erlilio-aniztasuna proiektatu dute.

Donostiari dagokionez, Europako kultur hiriburu izan zen garaian, Bakearen Itsasargiak (hiriburutzaren ekintza-ildo nagusietako bat izan zenak) erlilio-aniztasunari buruzko mahai bat sortzeko lanak abiatu zituen 2016an, udalerriko aniztasun sozio-erlijiosoari buruzko ikerlan bat egin ondoren. Kultu-zentro multikonfesional efimero bat ere eratu zen urte hartan, herritarrei errealtitate horren berri emateko asmoz. Garai hartan, erlilio-aniztasuna onartzeko eta ezagutarazteko proiekzio publikoak inpaktu handia izan zuen, baina, hala eta guztiz ere, mahaia ez zen berriz elkartu, eta, beraz, haren lanek ez zuten jarraipenik izan 2017. urteaz gerotzik.

Gasteizi dagokionez, bertako udalak denbora zeraman erlilio-erakunde minortarioen arazo eta eskaerak lantzen, baina 2021ean abian jarritako zenbait ekimenen bidez ekin zioten bertako agintariek udalerriko erlilio-aniztasunaren kudeaketarekin lotutako ekintza-ildo bat martxan jartzeari. Bere lanen artean, Gasteizko erlilio-aniztasunari buruzko azterketa diagnostiko bat egiten du bertako Bizikidetzaren Behatokiak²⁴; 2022ko uztailean aurkeztu zuten ekimena, gaiari buruzko jardunaldi publiko batean. Berriki, Udalak erlilio-aniztasunaren

²² Sakontzeko, ikus Ruiz Vieytes (2013).

²³ Bilboko Udalaren web-orrian aurkitu daiteke mahaiai buruzko informazioa; esate baterako, 2023ko martxoko bilerari buruzko albiste hau: https://www.bilbao.eus/cs/Satellite?c=BIO_Noticia_FA&cid=1279225211726&language=es&pageid=3012537910&pagename=Bilbaonet%2FBIO_Noticia_FA%2FBIO_Noticia

²⁴ Bizikidetza Behatokia, 2022.

kudeaketarako garrantzitsuak diren bi ekimen jarri ditu martxan: batetik, musulmanentzako ehorzketa-gune bat ireki du, eta, bestetik, erlificio-aniztasunari buruzko mahai bat sortu dute, Bilbon dutenaren antzekoa.

Erlificio-aniztasunaren udal-kudeaketari dagokionez, aipagarria da Bilbo eta Gasteizko udalak izan direla Tolerantziaren Aldeko Udalerrien ekimenera batu diren aurrenetako bi hiriak²⁵; Pluralismo y Convivencia fundazioaren bultzadaz jarri dute martxan ekimen hori, udalerriei erlificio-aniztasuna modu demokratiko, inklusibo eta pluralean kudeatzen laguntzeko. Ekimenaren asmoa, gorago aipatu ditugun guztiena bezala, gure gizartean lehendik errotuta zegoen errealtitate bat bistaratzen laguntzea da, eta errealtitate horrek onarpen instituzionala izatea ere bai, hori ezinbestekoa baita oztopoak gainditzeko eta erlificio- eta kultu-askatasuna gauzatzeko mekanismoak martxan jartzeko.

Erlificio minoritarioetako fede-bizipena. Elizak, elkarreak eta erlificio-erakundeak Euskadin

EAeko erlificio-aniztasunaren errealtitateak aldaketa ugari izan ditu azken hamarkadetan, batez ere mende honen joanean. Gizartea aldatu ahala, gorago ere esan dugunez, horrek esparru normatiboa aldatzea ere ekarri du. Euskal erakunde publiko nagusiek aldaketa horietako batzuen aurrean nola jokatu duten azaldu dugu aurreko lerroetan, batez ere gure lurradean ezarprena duten erlificioen behar eta eskaerak (minoritarioenak, batik bat) aintzat hartuta. Erlificio minoritarioetako sinestun, eliza eta elkarte kopuruak oso nabarmen egin du gora azken hamarkadetan, erlificio-aniztasunaren mapari buruzko datu eta informazio kuantitatiboen berri ematen dugun atalari erreparatuz eta, batez ere, azterlan hori aurreko zenbaitekin alderatuz (Ruiz Vieytes, 2010; Urrutia, 2016; Moreno eta Urrutia, 2023) ederki asko ikus daitekeen bezala. Zalantzak gabe, gurean ezarprena duten erlificio-tradizioen presentzia gero eta errealtitate errotuagoa da, eta horrek erronka berriak ekarri dizkio bizikidetzari eta kudeaketa publikoari. Kopuruak kopurua, dena den, erlificio minoritarioetako kide eta ordezkarien artean sortutako alderdi kualitatiboa aintzat hartza ere guztiz ezinbestekoa da.

Informazio kualitatibo hori honako motibo hauengatik da garrantzitsua: erlificio-gutxiengoei buruz ari garela (edo/eta erlificio horietako elizei eta elkarteei buruz),

²⁵ Tolerantziaren aldeko udalerriei buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, jo hona: <https://www.pluralismoyconvivencia.es/nuestro-trabajo/mejora-de-la-gestion-publica-de-la-diversidad-religiosa/municipios-por-la-tolerancia/>

eta betiere euskal herritarren erlilio-autoidentifikazioari buruzko lehen atalean azaldutako datuak erreferentzia moduan hartuta, argi ikus dezakegu, Euskal Soziometroko datuen arabera, EAeko herritarren % 5 inguruk identifikatzen duela bere burua erlilio minoritarioren batekin (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2022). Oso biztanle multzo txikia dela eman dezake, eta neurri batean hala da, baina, alde batetik, horrek ez du esan nahi erlilio-askatasuna den oinarrizko eskubidea erabat gauzatzea eragozten duten oztopoak gainditzeko neurriak hartu behar ez direnik, eta, bestetik, erlilio horiek gurean duten presentzia eta ezarpena dira, hain zuzen, gaur egungo gizartek berezkoa duten pluraltasunaren ispiļu eta gurea bezalako demokrazia liberalen oinarri. Bestalde, gure esparru normatiboak oinarrizko eskubidetzat dazkak bai fede-bizipena eta bai erlilio- eta kultu-askatasuna, eta ezin izan daiteke bestela, eskubide horrek babes berezia baitu bai estatu mailan (Espainiako Konstituzioko 16. artikulua) eta bai nazioarte mailan, giza eskubide den aldetik (Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsaleko 18. artikula eta Giza Eskubideen Europako Hitzarmeneko 9. artikulua), eta halakotzat hartu behar dute bai botere publikoek eta bai gizarte oso-osoak ere. Eskubide hori erabat garatu eta gauzatzeak ondorioak ditu bai maila indibidualean (jarraitzaileentzat) eta bai maila kolektiboan (elizentzat eta erlilio-elkarreentzat), dagoeneko aipatu ditugun zenbait alderdik eta hemendik aurrera aipatuko ditugun beste batzuek ere ederki erakusten duten bezala.

Atal honetan erlilio-erakunde minoritarioen ikuspegian zentratuko gara; horretako, haien premiei, eskariei eta erlilio-askatasunaren oinarrizko eskubidea gauzatzeko baldintzakin lotutako alderdiei buruz zenbait unetan bildutako informazioa erabiliko dugu. Elizen eta erlilio-elkarteen errealtitatea aldatu egiten da batetik bestera, jarraitzaileen ezaugarriak, komunitatean erroturik daramaten denbora, erlilio-tradizioa bera eta beste zenbait ezaugarri aintzat hartuta. Nola-nahi ere, errealtitate horien pluraltasuna gorabehera, gure lurrealdean ezarpena duten erlilioek zenbait elementu komun ere baditzute, batez ere beren bizi-pertsonal eta komunitarioei dagokienez. Aurreko lan batean (Urrutia, 2016: 107-111), gai horiek bost arlo edo eremutan egituratu genituen (kultua eta errituak, antolaketa eta ekonomia, esku-hartze soziala, zerbitzuak, eguneroko bizitza), horrek erlilio-askatasuna eta anitzasunaren kudeaketa aztertzeko aukera eman ziezagun. Oinarri horretatik eta lan haren emaitzetatik abiatuta behatu eta aztertu genuen Euskadiko erlilio minoritarioen egoera haien behar eta eskaerei dago-kienez eta erlilio anitzasunaz gurean nagusi den pertzepzioari dagokionez.

Gure oraino analisi-esparrua ordukoaren antzekoa bada ere, lan honetan gorago aipatutako bost eremuak moldatu egin ditugu, eta gaur egun garrantzizkotzat daukagun alderdi bat gehitu dugu (harreman instituzionalak), aurreko lanean ere bere lekua zuen arren, artean ez baitzen nabamentzen gaur egun adinako indarrarekin. Garrantzi handiko alderdia da, zeren eta, aurreko atalean dugun ikusi bezala, 2016. urteaz geroztik mekanismo ugari aktibatu baitira arlo horretan, Euskadiko errealtitate sozio-erlijiosoaren ezagutza areagotu eta errealtitate horren aitortza-neurriak martxan jartzeko bidea ireki dutenak.

Esan bezala, Euskadin ezarpena duten erlificio-gutxiengoegoerari buruzko ikuspegi bat jasotzen du atal honek, erlificio horiek gurean duten ordezkariena, eta haien eguneroko bizitzaren errealtitatearekin eta beren fedeararen agerpen publikoarekin lotutako gaiak lantzen ditugu. Horretarako, Euskadin ezarritako erlificio-elkartetako pertsona adierazgarriei egindako zenbait elkarritzetatistik ateratuko informazioa aztertu dugu, batez ere erroak ondo boteak izatearen aitortza lortu dutenei egindako elkarritzetakoa, hain zuzen ere horrexegatik gure azterlanerako kualitatiboki garrantzizkoa izan daitekeelakoan (ikus 1. eranskina).

Hurrengo orriean, gaur egun elkarte horietan eta haien jarraitzaileen artean bizi modua nolakoa den xehatuko dugu. Gai-sekuentzia bati jarraituko diogu, gorago aipatutako bost eremuetan oinarrituta (harreman instituzionalak ere barnean direla); horiek horrela, informazioa honela antolatu dugu: (i) antolaketa eta osaera azaltzen duten alderdiak; (ii) kultua ospakizunak eta errituak; (iii) espazio publikoen erabilerrarekin eta harreman instituzionalekin lotutako alderdiak; eta (iv) fede-bizipenekin eta pertzepzio sozialarekin lotutako gaiak. Eremu horietako bakoitzean, erlificio- eta kultu-askatasunerako eskubidea egiaz gauzatzeko aukerari dagozkion alderdi positiboak jasotzen dira, bai eta bidean agertutako zaitasun, oztopo eta gatazkak ere.

Elizen eta erlificio-elkarteen antolaketa eta osaera

Euskadin ezarpena dute elizak eta erlificio-elkarteak, izatez, askotarikoak dira. Sortu zituztenetik igarotako denbora, antolaketa tipologia (sarri, erlificio-tradizio jakin bati lotutakoa), jarraitzaileen osaera, eskura dituzten baliabideak, erlificio-tradizio bereko beste eliza edo elkarte batzuekin duten harremana eta beren Iurralde-artikulazioaren inguruko beste alderdi orokor batzuk aintzat hartuta, gurean ditugun elizen eta erlificio-elkarteen antolaketa oso da desberdina, eta bakoitzaren barruan ere gorabehera handiak daude.

Euskadiko elkarte askok oso antolaketa soila dute, beren kultu-zentroei dago-kienez, esate baterako. Batzuk, izatez, izugarri txikiak dira, eta jarraitzaile gutxi dituzte. Hori, hein handi batean, erlificio batzuen izaera komunitarioarengatik gertatzen da, edo dena delako erlificioak denbora gutxi daramalako gurean.

Erlificio-elkarteen ezaugarrietako bat pluraltasuna da, batez ere jarraitzaileen jatorri nazional edo lokalari dagokionez (Euskadiz kanpokoak). Kasu batzuetan, elkartea osatzen dutenek antzeko jatorria dute, batez ere nazionala, eliza edo elkarte batzuen nortasun-zeinuetako bat, besteak beste, immigrantez osatuta egotea baita. Hizkuntza bera hitz egiteak edo kultura-tradizio berekoak izateak fede-bizipena errazten die sinestunei, bai eta, oro har, Euskadin errotzea ere. Beraz, barne-heterogeneotasuna erlificio-erakundeen ezaugarri komuna da, elkarte bakoitzaren jarraitzaile eta ordezkariek berek nabamentzen duten bezala.

«Gure hiriko elkarteko gehienek osaera desberdina dute sorlekuari dago-kionez. Kideen jatorria askotarikoa da.» (islamiarra)²⁶

«Musulman euskaldun eta immigranteak elkartzea izan zen hasierako proiektua. Gaur egun, elkarrean Maroko, Tunisia eta Aljeria aldeko jendeak osatzen du gehienbat; Egiptoko jendea ere badago, Magrebko herrialde guztietakoak, baita Libiakoak ere, eta afrikarrak. Pakistan-darrak ere badaude, eta txetxeniarrak, eta bosniarrak. Latinoamerikarrak daude, eta gero eta euskaldun gehiago ere bai, jende asko dago islamiar bihurtzen ari dena, euskaldunak, eta ez ditzagun haurrek ahaztua, euskaldunak baitira, immigranteen edo immigranteak ez direnen seme-alabak, Euskadiko jaioak, euskaldunak dira, eta hemen gauden guztiok ere euskaldunak gara, hemen dagoen denetariko jendea...» (islamiarra)

«Kolore ugariko kongregazioa da, multietnikoa. Denetarik dago gu-rean: kolonbiarrak, brasildarrak, ekuadortarrak, boliviarrak, espainiarak ere bai, argentinarrak. Erdiz erdi gara atzerritarrak eta bertakoak. Espainiarren artean ere jatorri askoko jendea dago.» (ebanjelikoa)

«Elizako kide direnen artean, gehienak Euskadikoak bertakoak dira, baina, Espainiako errealtitate sozialaren ondorioz, immigrante lati-noamerikar asko ere badaude tartean. Gaur gaurko, Euskadiko eli-zetan, bertakoak % 60-65 inguru izango dira, leku batzuetan baita % 70 ere, eta gainerako % 30-35ak, berriz, Latinoamerikatik etorriak.» (ebanjelikoa)

«Euskal gizartean ikusten duguna (guk behintzat halaxe bizi dugu) zera da: elkarrean ebanjelikoa Latinoamerikatik etorria dela, elkarreko horretako kide gehienak Hego Amerikako herrialdeetatik etorriak direla. Hala ere, protestantismoa askotarikoa da, eta hori, bistan denez, ez da antzemanen.» (ebanjelikoa)

Alderdi hori aberasgarritzat daukate denek elkarteen antolaketari eta funtzionamenduari dagokienez. Bestalde, dena den, erronka gisa ere ikusten dute funtzionamenduaren eta fede-bizipenaren aldetik. Eliza eta erlijio-elkarteeetako jarraitzaileen osaerari dagozkion alderdiekin lotuta, halaber, horrek nahikoa zeresan ematen du euskal gizarteak elizei eta erlijio-elkarreko horiei buruz duen

²⁶Aurrerantzean, pasarte batzuen idatzera zertxobait moldatuta emango dugu, horrek testua errazago irakurtzen eta ulertzten lagundu dezakeelakoan. Elkarrizketatuen adierazpenak hitzez hitz ematen ahalegindu gara. Hala ere, zenbait kasutan (dela ahozko hizkuntza idatzizkora transkribatzeagatik, dela elkarrizketatuek gaztelaniaz mintzatzeko zuten zailtasunagatik), testua ulertzeari zailtzen zuten zatiak orraztu egin ditugu. Zenbait kasutan, halaber, aldatu egin dira pertsona batzuen izen-deiturak, haien anonimotasuna bermatzeko.

pertzepzioaren gainean (pertsona horiei buruzko ezaugarri ez oso zehatzak emanez, eta betiere estereotipoak tartean direla: musulman marokoarra; ebanjeliko latinoamerikarra).

Gainera, elizen eta erlilio-elkarteen ezaugarriei buruzko planteamendutik eta hausnarketatik sortzen den beste gai bat elkarte horiek beren inguruarekin duten harremana da. Zenbait kasutan, beren kultu-zentroak edo bilguneak dauzen auzoaren izaerak eragin ditzake harreman mota horiek, edo elkartearen berraren izaerak, bizilagunekin era horretako harreman estu eta gertukoak bilatzen dituelako, hain zuzen ere. Jarraian, elizek eta erlilio-elkardeeek eta haien jarraitzaileek txertatuak dauden testuinguru sozialetan izan ohi dituzten zailtasunen ezaugarriei buruzko bi adibide argigarri emango ditugu.

«Gero hortxe daude bizilagunekin irekitasunez jokatzen duten elkar-teak, eta baita isilago edo itxiago ibiltzen diren beste horiek ere, inguruko bizilagunekin harremanik ez dutenak edo halako harremanak bilatzen ez dituztenak.» (islamiarra)

«Hortaz, harremanak daude bizilagunekin, horko mertzeriakoarekin, hango beste mertzeriakoarekin... Javierrekin²⁷ hasieratik, zeren eta produktu ekologikoen denda bat baitauka, eta burua zaintzea maite dugun bezala, gorputzaren osasuna zaintzea ere gustatzen zaigu Izañ ere, nik uste, hemen egon eta Tere ezagutza... eta gero hor pareko bizilagunak ere aipatu behar dira, horko bizilaguna, esate baterako, txakurrarekin paseora ateratzean bisitan etortzen zitzaiguna pasteltxo eta guzti, jatera ere gonbidatu ninduen behin... Alegia, oso harreman ona dagoela, eta bada ohitura arraroak direla esaten duenik ere, baina auzoan berdin-berdin bizi daitezke.» (budista)

Azkenik, bestelako hausnarketak edo gogoetak ere pizten dira elizetako eta erlilio-elkardeeetako barne-dinamikei buruz: barne-aniztasunaren kudeaketa eta harrera, lidergoekin lotutako alderdiak, halako taldeetan praktikan jartzen diren lidergoien inguruan eta haietatik abiatuta komunitatea ehuntzen den moduaren inguruko kontuak, belaunaldiarteko desberdintasunen ondorioz sortzen diren zailtasunak, elkarteen jarraipenerako kezkagarri gertatzen direnak...

«Zailtasunak ditugu barne-aniztasuna hartzen dugun moduarekin, jarraitzaile guztiei Elizako kide direla sentiarazteko moduarekin, oso desberdinak baikara. Horrekin batera, elizetako lidergoarekin eta belaunaldiarteko berrikuntzarekin lotutako kontuak ere hortxe daude.» (ebanjelikoa)

²⁷ Hitzez hitz emanak dauden aipamenetako izenak asmatuak dira.

Kultua, ospakizunak eta errituak

Kultuak eta errituak estu-estu lotuta daude kultu-zentro edo -lekuen eskuragarritasunarekin, elizek eta erlijio-kongregazioek halakoetan eramatzen baitute aurrera beren elkartea-bizitza. Behin eta berriz egiazta daitekeen bezala, ordea, espazio horiek ez dira beti kultu-xedezez erabiltzen. Kultu-zentroetan edo kultu-xedezez erabiltzen diren lekuetan (elizak, otoiztegiak eta antzekoak), ospakizun, erritu eta otoitzaldi komunitarioez gain, bestelako jarduerak ere egiten dituzte, hala nola jarduera sozialak edo hezkuntza-ekintzak. Halakoena erabilgarritasuna ez da ospakizun-jarduerekin lotutako espazioek izan ohi dutenera mugatzen, era horretako lekuak funtzio asko betetzen baitituzte. Funtzio horien artean daude, besteak beste, kultura- edo gizarte-jardueren antolaketa, edo kide iritsi berrien harrera. Kultu-zentroek zuzeneko erantzuna ematen diente erlijio-askatasuna bere alderdi komunitarioan praktikan jartzearekin estuen lotutako elementuei. Elkarte gehienak lurraldean erroturik dauden neurrian, kulturako, eguneroko ospakizunetarako eta elkarrearen bilkuretarako egokitzen eta moldatzten dituzten tokiak izaten dituzte. Hala ere, hori ez da beti hala izan, eta, zenbait kasutan, leku horietako batzuk txikiegiak izaten dira zenbait ospakizun bertan egiteko. Lokalen baldintzak, oro har, egokiak izaten dira, eta behar bezala egokituta egoten dira. Datozen pasarte hauetan, ederki ikus daitezke aipatu diren alderdietako batzuk.

«Gaur egun, lokalak ondo egokituta daude, 80etako prekarietatea atzean utzi dugu. Gaur egun, lokal gehienak ofizialak dira, arau guztia betetzen dituzte, salbu eta, agian, denbora gutxien daramaten taldeenak, lokal gehienek baimenak dituzte, larrialdietarako irteerak, legeak betetzen dituzte.» (...) «Gure kasuan, zehazki, elkartzen garen lekuak izugarri zaitzen digu lokala gizarte-jardueretarako erabiltzea, zeren eta etxabe batzuetan baitago, pasagunetik oso urrun, eta, beraz, elkarreak bere jarduerak egiten ditu, baina oraintxe bertan besterik ez.» (ebanjelikoa)

«Lokal hau –eta aurrekoak– prestatzeko, erreformak eta konponketa-lanak egin behar izan genituen. Lokal hau kultu-leku gisa onartuta dago. Gu ez gaude bizilagunen artean, industriagune batean gaude, eta martxan jarraitzeko behar diren baimen guztia ditugu. Kultu- edo ospakizun-aretoa prestatu genuen. Jendea bertara etortzeko, bertan egoteko eta aretoa erabiltzeko egokia da, lekuak jendeak publikoki erabiltzeko modukotzat jo baitute. Beraz, arau guztiak bat dator eta baimen guztia ditu.» (ebanjelikoa)

Bada kontu bat, kultu-zentroen arloko legedia betetzeko dauden zailtasunekin lotuta, erlijio minoritarioetako ordezkariek aipatzen dutena Gaiari buruzko arau

zehatzik ez egoteak²⁸ zailtasunak eragiten ditu zenbait lekutan, baldintza administratiboak desberdinak eta gorabeheratsuak baitira leku batetik bestera. Zailtasun horietako batzuk baldintza administratiboekin lotuta daude zuzenean, edo baldintza horiek betetzeko zer eta nola egin argiegi ez egotearekin. Kultuzentro horiek ezartzeko dauden oztopoak soluzio praktikoak bilatzeko bideak baino gehiago direlako sentsazioak ere gauzak zailtzen ditu. Horrenbestez, erlilio-entitateen beharretara egokitzen den eta baldintza administratibo edo urbanistikoak betetzen dituen kultu-zentro bat edukitzea, sarritan, oztopo-lasterketa bat gainditzearen eta sekulako esfortzu administratiboa egitearen parekoa da. Horren ondorioz, adibide bat jartzearen, erlilio batzuek, beren aginduak betetze aldera, bestelako baimenak eskatu behar izaten dituzte zenbait kasutan. Hori jarraitzaile gutxi dituzten elkarteeek bakarrik egin dezakete.

«Zentro hau irekitzeko, nahiago izan dugu liburu-denda bat jartzeko eskaintzen dizkiguten errogaibak onartu, eta, testuinguru horretan, gure meditazio-jarduerek denbora gutxiago eskatzen digutenez denda zabalik edukitzeak eskatzen diguna baino, Elkar, Fnac, Casa del Libro eta halako liburu-dendek dituzten foroak bezalakoa litzateke, bertan saltzen dituzten liburuak aurkezteko erabiltzen dituzten foroak bezalakoa. Guk egunean behin, ordu eta erdiz, hemen salgai dauzka-gun liburuak aurkezten eta liburu horietako meditazioak maila praktikoan esplikatzen ditugu. Alde horretatik, baimenak oso arin iritsi dira, eta dena errazagoa da.» (budista)

Beste kasu batzuetan, elkarrean handiagoa bada eta jendea bertan egoteak biziagunei enbarazu egin badiezaieke, edo ospakizunak berak eragozpen akustikoak eragiten baditu, trabak minimizatzen dituzten lekuak bilatzea erabakitzendu. Kezka eta ardura horiek guztiak elkarrean bertan sortzen dira, honako adibide hauek ederki erakusten dutenez.

«Ongi iruditzen zaizkit (arauak eta intsonorizazioa), zeren eta helburua bizilagunen bat eragin dakioko enbarazua galaraztea baita, baina, nire ustez, beste alderdi batzuk dira funtsezkoak, gure kultuak larunbatetan goizeko 10etatik aurrera hastea adibidez, ostiraletan arratsaldeko 9etan amaitzen baitira, eta, beraz, ordutegi horrek ez baitio jendearen atsedenari kalte egiten.» (...) «Denborak aurrera egin ahala, elizetan aire girotuko ekipoak eta berogailuak jartzen dira, eta urteen joanean modernizatuz joaten dira.» (ebanjelikoa)

²⁸ Kultu-zentroei eta erlilio-aniztasunari buruzko legearen onespena berriegia da oraindik haren efektuak neurtzeko.

«Begien bistan dauzkagun zaitasun batzuen kontzientziarik ez dugu, baina, inori enbarazurik egin nahi ez diogunez, gure espazioak intsonorizatu egin behar izaten ditugu, edo, zenbaitetan, gure zentroak herri eta hirien periferian jarri behar izaten ditugu, haien inpaktua txikiagotzeko.» (ebanjelikoa)

Oin-oharrean kultu-zentroen egoerari buruz adierazi dugun bezala, Euskadin oraindik ere ezer askorik ez dakigu Eusko Legebiltzarrean berriki (2023ko ekainaren 29an) onetsitako kultu-zentroei eta erlilio-anitzasunari buruzko legeak EAeko udalerrieta kultu-zentroei eragingo dien moduaz, baina espero izateko da orain arteko oztopoak gainditzen lagunduko diela, gaur egun eliza eta erlilio-elkarte gehienek izugarrizko zaitasunak baitituzte. Orain arte, elkarte horietako askok denetariko arazoak konpontzeaz arduratu behar zuten bereziki, zarata potentziala murrizteaz (intsonorizazioan inbertituz) edo ezarrita zeuden udalerrieta periferietan zentro baten bila aritzear esate baterako, eta horrek kalte egiten zion jarraitzaileen irisgarritasunari edo beren funtzoak betetzeko egokiak ziren lekuak aurkitzeko moduari.

Leku publikoak, zerbitzuak eta harreman instituzionalak

Agintari eskudunei baimena eskatu eta leku publikoak erabiltzea: beharbada hori izango da erlilio-erakundeei buruz proiekzio publiko handiena duen irudia. Elkarteek daukatena baino espazio handiagoa nahi edo behar dutenean gertatzen da hori, jai garrantzitsuren bat ospatu nahi izaten dutenean, halakoetan jarraitzaile kopuru handia elkartu behar izaten baitute. Gizartea bere osotusunean ospakizun horiei buruz duen pertzepzioa elementu askoren araberakoa izan ohi da: jende-pilaketeak dakartzaten eragoparen, zarataren, «ohikoa-goak diren ohiturez» bestelako adierazpen edo kultura-elementuek eragindako harriduraren eta antzeko elementuen araberakoa, alegia. Halako zirkunsantziek denetariko jarrerak eta iritziak eragiten dituzte erlilio minoritarioetako arduradunen aldetik, batez ere beren jarduerak espazio edo zerbitzu publikoak erabili beharra dakarten bestelako jarduerekin erkatzen eta alderatzen direnean. Hona hemen adibide batzuk:

«Ez zait iruditzen arauak diskriminatzen nautenik, dagoen araudia zuzena iruditzen zait. Baina bada kontu bat eta da zerbait egitea galarrazten duela. Edozein talde politiko etor daiteke GKE bat balitz bezala meeting bat egitera. Aldiz, ni kultura-jarduera bat egitera nator, Eliza Ebanjeliko Bataiatzailearen babespean egitera etorri ere, eta... etxabeei dagokienez, araudia izugarria da, zeren eta, berez, ikuskizunetarako lokalen araudia aplikatzen baita, eta ordutegiak ez dira inola ere haienak bezalakoak.» (ebanjelikoa)

«Batzuetan ez dugu izaten leku publikoak erabiltzeko modurik, eta, esan dezagun, beste edozein elkartek adinako eskubidea dugu, baina erlificio-elkarte izatea estima bat da guretzat.» (ebanjelikoa)

«Uste dugu espazio publikoa edo aire publikoa (ramadanaren amaiera) erabiltzeko beharra dugunean dena dela traba kudeaketari dago-kionez: segurtasuna, logistika, baimenak eta abar. Batzuetan geure buruari galdetzen diogu nola litekeen guretzat zailagoa izatea, beste batzuen aldean (musika-jaialdiak), nola litekeen Udalak inplikazio-maila handiagoa izatea beste horiekin, eta horrek zalantzak sortzen ditu berdintasunez jokatzen ote duten.» (islamiarra)

«Lekuren bat erreserbatu nahi izaten dugunean solasaldi, hitzaldi edo erlijiosoa ez den zerbait egiteko, zailtasunak erraztasunak baino gehiago izaten dira. Ados ere ez gaude espazio publiko bat otoitz egi-teko leku gisa ezin erabiltzearekin.» (islamiarra)

Kontu horretan sakontze aldera, esan dezagun leku-eskaerak, bai utzitako lekuak eta bai alokairuan hartutakoenak, oso argi ematen duela erlificio-erakunde batzuek duten diskriminazio-sentipenaren berri, eta areago beren egoera beste erakunde edo elkarte batzuenarekin alderatzen badute (edo beren jarduerak era guztiak jaialdi eta jarduerekin alderatzen badituzte).

Irakaskuntza ere kezka handia eragiten duen arloa da erlificio-erakundeen ordezkarientzat. Bi dira kezka-iturri nagusiak: batetik, ikastetxeetan irakasten den erlificio-ikasgaia; eta, bestetik, zenbait hezkuntza-eduki. Estatuarekin lankidetzahitzarmenak dituzten erlificioen kasuan, hezkuntza-curriculumaren barruan beren erlificioari buruzko ikasgaiak (islamari eta protestantismoari buruzkoak) ikasteko eta lantzeko indarrean dagoen araudiak ematen dien aukerari dagokio lehen kezka-iturria. Ikasgai horiek emateko gaitasun eta tituluak dituzten irakasleak aurkitzeko zailtasunekin lotutako arazoak detektatzen dira, baina orobat esaten da ez dela behar adinako ahaleginik egiten arauak ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren eskakizunak dituzten langileak eskuratzeko eta langile horiei babesia emateko. Bestalde, adin txikikoan hezkuntzarekin lotutako gai edo arazoekin zerikusia duten kontuak ere aipatzen dira sotilki. Zehatz esatera, sexu-heziketa lantzen den modua. Hona hemen bi adibideak argitzen dituzten erreferentziak:

«Zailtasunak ditugu, legeak aitortzen duenarekin bat etorri, erlificio-ikasgaia emateko irakasleak lortzeko. Ezarritako eskakizunak (tituluak eta hizkuntza-gaitasuna) betetzen dituzten irakasleak aurkitzea oso kontu zaila da.» (islamiarra)

«Haurren hezkuntzak kezkatzen gaitu, haien hezkuntzarako eskubideak, eta batez ere sexu-heziketarekin lotutako kontuek kezkatzen gaituzte. Oraingoz, besterik gabe, ikasgeletan sexu-heziketarekin lotuta ematen dizkieten ikastaroetako eduki eta gaitasunek sortu dizki-gute kezka eta zalantza.» (ebanjelikoa)

Egoera horietatik ondorioztatzen denez, hezkuntzaren gaiak, itxuraz behintzat, elkarrizketa-ildo egonkorragoa eskatzen du arlo instituzionalaren eta gure lurradean ezarpena duten erlilioetako ordezkarien artean (erlilio horiek Estatuarrekin lankidetza-hitzarmenak sinatuak dituztela aintzat hartuta, gainera). Ez da hala gertatzen erkidego mailako beste eskumen-esparru batzuei dagokienez; izan ere, elkartea ebanjelikoko ordezkariekin adierazten dutenez, pozgarria da beren elkartea (FEREDE) eta Gobernuak espetxeetan lagunza emate aldera hitzarmena sustatu izana. Elkarrekin hizketan jardun ondoren (behin espetxeak kudeatzeko eskumena eskualdatuz gero), Eliza Ebanjelikoko ordezkariekin eta Eusko Jaurlaritzak akordio espezifiko bat egin dute lehenengoek, beren artzainen (edo ordezkarien) bitartez, espetxeetan lagunza-zerbitzuak eskain ditzaten²⁹. Oro har, arlo batzuetan, hala nola osasunarenean, hezkuntzarenean eta espetxeenean, azken hamarkadetan Eusko Jaurlaritzaren eta zenbait erlilio-erakunderen arteko harremanek aurrera egin dutela argi ikusten da. Erlilio-erakundeetako ordezkariekin askotariko motiboak aipatzen dituzte, baina denak daude lotuta elkarrizketa-ildoak martxan jartzeko ekimenekin eta Euskadin eta bertako udalerriean ezarpena duten elizen eta erlilio-erakundeen ezagutzarekin (ezagutza pertsonalarekin) eta aitortzarekin.

«Arrakasta duten kudeaketek gure arteko harreman pertsonalengatik funtzionatzen dute ondo, guk geuk jarri ditugulako martxan. Erakundeak ate irekien jardunaldieta etortzeak ere laguntzen du, aitortza-seinale den aldetik.» (islamiarra)

«Mahaia (Bilboko) sortu izanak eta martxan egoteak erraztu egiten ditu erakundeekiko lanak.» (ebanjelikoa)

Eguneroko bizitza eta gizarte-pertzepzioa

Erlilio minoritarioren bateko kide diren pertsonak «sinestun praktikante» deritzon fededunen multzoan sartzen dira. Hau da, beren elizetan eta erlilio-elkarreteran antolatzen dituzten erlilio- eta kultura-jardueretan aktiboki parte hartzen duten

²⁹ Akordioari buruz gehiago jakiteko, jo hona: <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/-/noticia/2023/un-convenio-justicia-federacion-entidades-evangelicas-garantizara-derecho-efectivo-asistencia-religiosa-personas-presas-consejo-gobierno-23-5-2023/>

fededunak dira, eta hori, kasu gehienetan, beren eguneroko bizitzara ere hedatzen da. Horrek, aldez edo moldez, talka egiten du euskal gizartearren seku-larizazio-prozesuarekin eta erliliozaletasunaren (erlilio katolikoaren) beherakada progresiboarekin. Sinestunen arabera, fedeak beren bizitza osoa hartzen du, eta, beraz, sinesmenen eta praktiken arteko muga oso lausoa da. Honako elkarrizketa-pasarte hauek ederki erakusten dute, besteak beste, sinestunek nola bizi duten beren feda eta horrek zer-nolako lotura duen eguneroko bizitzarekin.

«Beste batzuek diote sinestunak direla, baina ez praktikanteak. Hemen zaila da, praktikantea ez bazara, ez duzu lekurik (...). Gauzak asko aldatu dira diktaduraren urteetatik gaur egun arte, ezta? Izen ere, lehen zaitasunak genituen lanean, zaitasunak genituen, eta oraindik ere baditugu, baina gutxiago.» (Jehovaren lekukoa)

«Erlilioa, horretaz gain, fedearen indar espiritual eta morala izateaz gain, bizitzako arlo askotan konponbideak ematen dizkizun zerbait ere bada, lanean esaterako, lan egin behar duyunean, jendearekin harremanetan sartu behar duyunean, zer nola egin esaten dizu, bizitzako helburu nagusiak zein diren, horrek bizitza den bidea argitzen dizu gutxi-asko, zeren eta erlilioa ez baita errituala bakarrik, gauza guztietan, ia guztietan, dago gurekin batera». (islamiarra)

«Pertsona bat prestatzen duzu, horixe da egiten ari zarena, ezagutzak eman, irizpideak zabaldu, beste era bateko jokabideak egon daitezkeela argitu, eta baita bestelako pentsamoldea dutenekin harremnak izatea zer den ere.» (ebanjelikoa)

Beren fedearekin eta eguneroko bizitzarekin lotutako alderdietako bat, aurrez esandakoa oinarri duena, senidetasuna da, bai beren elkarteko beste kide batzuei dagokienez, bai elkartekoak ez diren baina egoera zaurgarrian eta/edo arreta premian eta/edo laguntza premian daudenei dagokienez. Gizarte-laguntzaren esparruan egiten duten lanak (elikagaiak banatzen, kooperazioan, etab.) proiekzio publiko eta sozial adierazgarria du, baina sarritan ez dakigu horren berri, edo ez dugu pertsona horien lana aitortzen.

«Elizak bere GKEa du, baina bestelako jarduera komunitarioak ere egiten ditugu; esate baterako, elikagaiak banatzen ditugu Munduko Elikagaien Bankuari egiten dizkiogun dohaintzen bitartez; guk, hemen, noizean behin elikagaiak banatzen dizkiegu familia behartsuei. (...) GKEak diru-bilketa bat egiten du urtean behin. Orduan biltzen dugu dirua gure GKEaren aldea; esan bezala, gizarte-laguntza helburu duen erakunde bat da, eta Euskadiko GGKEen Koordinakundean dago, iza-na emana du Euskadiko GGKEen Koordinakundean, Euskadin lanean diharduten GKE guztiekin batera egiten du lan.» (ebanjelikoa)

Erlilioaren alderdi publiko hori, erlilio bakoitzak berezko dituen bokazio kolektibo eta printzipio solidarioak zabaltzeko balio duen alderdi hori, oso ohikoa da EAEn, eta gizarteak gutxi-asko badaki zerbait horren berri (tradizio katolikoari dagokionez gehienbat, hura izan baita nagusi gurean). GKEetako askok, sektore sozialarekin edo nazioarteko solidaritate-sarearekin loturak dituztenek, sustrai erlijioso (katoliko) nabarmena dute, eta herritarrek ere halaxe ezagutzen dituzte. Erlilio minoritarioekin lotutako erakundeei dagokienez, ordea, pertzepzioa bestelakoa da.

Bestalde, euskal gizartea gizarte katoliko bat da bere kultura-tradizioei dago-kienez, eta proiekzio horrek zaitasunak dakarzkie lurraldean ezarpena duten gainerako erlilio-tradizioei. Errealitate horren ondorioz, euskal gizarteari beren sinesmenak eta presentzia bera ez zaizkiola axola edo herritarrek beren erlilioari argi eta garbi arbuio egiten diotela sentitzen dute erlilio minoritarioek (eta haien jarraitzaileek).

«Era askotako erreakzioak egoten dira beti. Badira entzuten dizutenak, entzuten ez dizutenak, denetik. Badira musulmana izateagatik baztertzen zaituztenak. Badira elkartea bat zer den ulertzen ez dutenak. Denek epaitzen dituzte meskitak, besterik gabe, laikoak direnez erlilioaren kontra daudelako, ez dute nahi ez elizarik, ez meskitarik, ez ezer. Zaila da halakoak konbentzitzea ez diezula kalterik egingo eta errespetua zor dizutela zuk besteei bezala.» (islamiarra)

«Elkartea eta elizetako kideek enbarazurik ez egitea da bilatzen dutena. Beren jarduerek eta kultuek bizilagunei enbarazurik ez egitea. Zenbaitetan, horren ondorioz, urrutira joan behar izaten dugu kultu-lekuen bila.» (ebanjelikoa)

«Musulman-elkarreka, oro har, ez du gizartean parte hartzen. Ez daude oso implikatuta euskal gizartean. Implikatuago egoteak, agian, gauzak erratzuko lituzke.» (islamiarra)

«Proiekzio publiko handiagoa lortzek formulak bilatu beharko lirateke beharbada. Geure burua ezagutarazi bizilagunei, gizarteak hobetu ezagut gaitzan. Gure elkarteei buruzko estereotipo eta aurreiritzia uxtatzeko formulak aurkitu behar dira.» (ebanjelikoa)



Ondorioak

Euskadiko erlijio-aniztasuna errepresentazio bat eskaintzen ahalegintzen da txosten hau, errealtitate hori testuinguruan jarriz, fenomenoaren argazki finkoa lortzen lagunten diguten datu kuantitatiboak emanez eta EAEn presentzia duten erlijioei buruzko premien azterketa kualitatiboa eginez, horrek datuak beste ikuspegi batetik osatzen lagundi diezagukeelakoan.

Lehenik eta behin, Espainiako Estatuan erlijio- edo kultu-askatasunak oinarritzko eskubide gisa lortu duen aitorta normatiboaren garrantzia nabarmendu beharra dago. EAeko herritarrek erlijioarekin duten harremanari dagokionez, kontuan izan behar dugu harreman hori zuztar-zuztarretik aldatu dela azken hamarkadetan. Alde batetik, sekularizazio-prozesu bat izan da, eta, beraz, gaur egun jendeak lehen baino gutxiago identifikatzen bere burua fedearekin, batez ere erlijio katolikoarekin. Era berean, euskal gizartean gutxienak izan arren, katolizismoaz bestelako erlijioek gero eta presentzia handiagoa dute gurean, batez ere erlijioa hemen baino garrantzizkoagoa den herrialdeetatik hona etorritako atzerritarren etorreragatik.

Erlilio bakoitzak EAEn duen pisuari buruzko Ikerlan honen esparruan egindako kalkuluen arabera, herritarren %57,7k erlijio katolikoarekin identifikatzen du bere burua; % 35,5ek, berriz, ez-sinestuntzat daukate beren burua, eta % 7,3k, erlijio minoritarioen bateko sinestuntzat. Katolizismoaz bestelako erlijioen artean, islama da jarraitzaile gehien dituena: EAEn bizi diren herritarren % 4 dira musulmanak; bigarren postuan ebanjelikoak daude (% 1,1), eta hirugarren postuan, ortodoxoak (% 1).

Erlilio-sinesmen minoritarioek gurean dituzten kultu-zentroei dagokienez, eliza ebanjelikoak, meskitak eta Jehovaren leukoen Erreinuaren aretoak dira nagusi, hurrenez hurren. Zentro-kultuen kopuruak ez du zuzeneko loturarik haietako bakoitzari dagokion erlijioaren jarraitzaile kopuruarekin; beste faktore batzuek ere eragiten diote zentro horien ezarpenari. Besteak beste, erlijioak lurraldlean duen errotze-mailak, edo erlijio bakoitzaren erritu eta praktikek. Gainera, oro-

bat esan beharra dago erlilio minoritarioen jarraitzaileen banaketa aldatu egiten dela euskal lurradean barrena, eta horrek kanpotik hona etorritako migratzai-leek zenbait erlilioarekin duten loturarekin duela zerikusia.

Bestalde, erlilio minoritarioetako elizek eta erlilio-elkarte eta -erakundeek gu-rean duten ezarpenaren errealtitatea gorabeheratsua da. Kopuruei dagokienez, ez dute presentzia handiegirik, baina egia da ezarpen-maila gero eta handiagoa dutela, eta, ezarpenak ezarpen, argi dago Euskadin duten errotze-maila sendoa dela; alde horretatik, euskal gizartea Europako gainerako gizarteen paretsuko maila du erlilio-anitzasunari dagokionez. Errealitate berri horrek hainbat modu-tan interpelatu ditu botere publikoak, lan honetan ikusi ahal izan dugunez. Eta, hala, erlilio-anitzasunaren kudeaketarekin lotutako zenbait elementu txertatu dituzte beren politika publikoetan.

Nolanahi ere, erlilio minoritarioak ezagutzeko eta aitortzeko martxan jarri diren ekimenak gorabehera, oro har oso gutxi dakigu erlilio minoritarioen errealtita-teaz eta beren fedea bizitzeko eta erlilio- eta kultu-askatasunerako eskubideak gauzatzeko dituzten zaitasunez. Hori da erlilio horietako ordezkariek duten iru-dipenetik ondorioztatzen dena. Ezjakintasun horrek, nolabait ere, erlilio minoritarioei dagozkien eskubideak erabat aitortza zaitzen du, eta beren eskubideak guztiz gauzatzeko dituzten eragozpenak deuseztatzeko bidean aurrera egitea galarazten.

Erlilio desberdinak fededunek beren eskubideak guztiz gauzatzeko eta fe-dea beren sinesmen eta aginduekin bat etorri bizitzeko beharrezkoak diren urratsak egiteko zaitasun nagusiak azken azpiatalean aipatzen diren espa-rruen inguruan egituratzen dira. Amaitze aldera zerbait azpimarratzen hasi-ta, kultuarekin, ospakizunekin eta halakoak erlilio bakoitzaren premiei aurre egiteko moduko espazioetan antolatzeko aukerarekin lotutako alderdi batzuk nabarmendu litzke agian. Elizek eta erlilio-elkarteeek dituzten topagune gehie-nen errealtitatea, batez ere kultu-zentroena, oso urrutti dago baldintza idealak betetzetik. Bestalde, harreman instituzionalei dagokienez aurrera egin badugu ere, oraindik bada zer hobetu aitorta instituzional betera iritsi eta aitorta hori eraginkorra izateko. Horrekin lotuta, erlilio minoritarioei eta haien jarraitzaileei buruz gizartea duen pertzepzioarekin lotutako gaiak lantzearen garrantzia ere nabarmendu beharra dago, herritar horiek, besteak beste, erlilio- eta kultur-as-katasunerako duten eskubidea benetan gauzatzeko ahala izan dezaten.



Bibliografía

Vitoria-Gasteizko Udala. Observatorio de la Convivencia (2022). Erlilio-aniztasunari buruzko azterketa diagnostikoa Vitoria-Gasteizen, Vitoria-Gasteiz: Vitoria-Gasteizko Udala. <https://www.vitoria-gasteiz.org/docs/wb021/contenidosEstaticos/adjuntos/eu/57/81/95781.pdf>.

Bilbao, Saioa (2015). El capital social de las minorías religiosas en el País Vasco. Doktorego-tesia, Leioa: UPV/EHU.

Celador, Oscar (2023). Entidades locales y libertad religiosa, Madril: Dykinson.

Ikerketa Soziologikoen Zentroa (CIS) (2022). Barómetro nº 3347 de enero 2022. <https://es.statista.com/estadisticas/551220/distribucion-de-la-poblacion-espanola-por-creencias-religiosas/>

CIA. The World Factbook. Religions. [Kontsulta: 2023ko abendua] <https://www.cia.gov/the-world-factbook/field/religions/>

Prospekzio Soziologikoen Kabinetxea. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. (Zenbait soziometro: 1987koa, 1997koa, 2007koa, 2012koa, 2017koa, 2022koa) Euskal Soziometroak. <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/euskal-soziometroak/>

Prospekzio Soziologikoen Kabinetxea. Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritza. (2012). Aniztasun erlijiosoa. https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/o_12tef1_diversidad/eu_12tef1/adjuntos/12tef1-diversidad_religiosa_eu.pdf

Eusko Jaurlaritza (2015). Euskadiko erlijio-aniztasunaren kudeaketa positiboari buruzko txostena, Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritza. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/documentos_paz_convivencia/eu_def/adjuntos/Erlilio%20aniztasunaren%20txostena.pdf

Ikuspegia (2024). Mapa de las Religiones de Euskadi 2022.

Ikuspegia (2024). Neurtu 2023, Barómetro sobre la diversidad en la CAE:
percepciones y actitudes hacia la diversidad religiosa.

Estatistika Institutu Nazionala (INE) (2022). Estadística del Padrón Continuo a
1 de enero de 2022.

8/2023 Legea, ekainaren 29koa, Euskal Autonomia Erkidegoko kultu-
lekuei edo -zentroei eta erlilio-anitzasunari buruzkoa (EHAA,
2023ko ekainaren 29a). [https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/
es-pv/l/2023/06/29/8/dof/eus/html/](https://www.legegunea.euskadi.eus/eli/es-pv/l/2023/06/29/8/dof/eus/html/)

Moreno, Gorka eta Urrutia, Gorka (2023). «Diversidad religiosa en Euskadi ¿Es
la religión un factor para la desigualdad?», in Shershneva Zastavnaia,
Julia (ed.) Zabaldu 1. Dimensiones de la desigualdad, Leioa: UPV/EHU,
137.-158. or.

Espainiako Erlilio Anitzasunaren Behatokia (2024). Directorio de Lugares de
Culto. <https://www.observatorioreligion.es/directorio-lugares-culto/>

Pew Research Center (2012). The Global Religious Landscape. [https://www.
pewresearch.org/religion/2012/12/18/global-religious-landscape-exec/](https://www.pewresearch.org/religion/2012/12/18/global-religious-landscape-exec/)

Ruiz Vieytes, Eduardo J. (zuz.) (2010). Pluralidades latentes. Minorías
religiosas en el País Vasco. Bartzelona: Icaria.

Ruiz Vieytes, Eduardo J. (zuz.) (2011). La diversidad religiosa en el País Vasco.
Nuevos retos sociales y culturales para las políticas públicas. Bilbao:
Deustuko Unibertsitatea.

Ruiz Vieytes, Eduardo J. (2013). «Derechos humanos, discriminación y
diversidad religiosa en el País Vasco: la polémica sobre la apertura
de espacios de culto en Bilbao», in Moreno Márquez, Gorka (ed.)
Inmigración e impacto de la crisis. Anuario de la inmigración en el País
vasco 2013, Leioa: UPV/EHU, 283.-294. or.

Bake eta Bizikidetza Idazkaritza Nagusia (2016). «Bizikidetzarako kultura
eta giza eskubideak», hemen: 2013-2016rako Bake eta Bizikidetza
Planaren baitan sortutako dokumentuen bilduma. [https://www.
euskadi.eus/contenidos/informacion/sgpyc_compilacion_docs/eu_def/
adjuntos/7-bizikidetzarako-kultura-gg-ee.pdf](https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sgpyc_compilacion_docs/eu_def/adjuntos/7-bizikidetzarako-kultura-gg-ee.pdf)

Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetza Idazkaritza Nagusia (2020). «Erlilio-aniztasuna», hemen: 2017-2020rako Bake eta Bizikidetza Planaren baitan sortutako dokumentuen bildumaconvivencia. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/sgpyc_compilacion_2017_2020/eu_def/adjuntos/7-erlilio-aniztasuna.pdf


Urrutia Asua, Gorka (2016). Minorías religiosas y derechos humanos. Reconocimiento social y gestión pública del pluralismo religioso en el País Vasco, Madrid: Akal.

Urrutia Asua, Gorka, Ruiz Vieytes, Eduardo J. eta Martínez de Bringas, Asier (2020). Diversidad religiosa y participación. Prácticas y claves de su gestión en entornos urbanos, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea.

Kontsultatutako web-orriak:

Espainiako Erlilio Aniztasunaren Behatokia: https://www.observatorioreligion.es/el_observatorio.html

Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Memoria eta Lankidetza arloa, giza eskubideen planekin lotutako hainbat dokumentu (2013-2024): <https://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/derechos-humanos-convivencia-cooperacion/>



Eranskinak

1. eranskina: Ikerlan kualitatiboaren fitxa metodologikoa

EAEn ezarpena duten eliza eta erlijio-elkarteetako ordezkariei eginiko zenbait elkarrizketa sakonetan oinarritzen da ikerlan kualitatiboa. Elkarrizketen bidez, EAEko erlijio minoritarioen egoera, behar eta eskaerei buruzko informazio jakingarria bildu da. Horretarako, 2008tik 2009ra bitartean eginiko zenbait elkarrizketatik atera da informazioa (7 izan dira guztira)³⁰. Halaber, beste zenbait elkarrizketa ere egin dira (5 guztira) 2023ko bigarren seihierekoren joanean erlijio minoritarioen egoera, behar eta eskaerei buruzko informazioa egunerau eta osatzeko.


Erlilio guztiak hartu dira aintzat elkarrizketatuen hautaketarako, denek izan zezaten ordezkaritza, bakoitzaren lurralde-hedapena eta denboraren joaneko ibilbidea kontuan izanda. Elkarrizketatuei buruzko informazioa anonimoki eman da, eta, alde horretatik, testuan elkarrizketatu bakoitzaren erlijio-tradizioaren erreferentzia soilik adierazten da. Elkarrizketak gai nagusi hauen inguruan artikulatu dira: erlijio minoritarioen egoera, beharrak eta eskaerak. Informazioa lortzeko, elkarrizketen gidoia honako gai-sekuentziaren arabera antolatu dugu: (i) antolaketa eta osaera azaltzen duten alderdiak; (ii) kultua ospakizunak eta errituak; (iii) espazio publikoen erabilerarekin eta harreman instituzionalekin lotutako alderdiak; eta (iv) fede-bizipenekin eta pertzepzio sozialarekin lotutako gaiak. Hona hemen egin ditugun elkarrizketa guztien banaketa:

³⁰ Zehazki, bi ikerketa-proiektu hauen barruan: batetik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak diruz lagundutako «Erlilio-aniztasuna Euskadin. Politika publikoen aroko erronka sozial eta kultural berriak» (erref. HU2009-30); bestetik, Zientzia eta Berrikuntza Ministerioaren «Erlilio-aniztasuna espazio publiko lokal edo erregionalean harmonizatzeko eskakizun sozial eta praktiko berriak» (erref. CSO2011-24804).

1. taula. Elkarrizketatuei buruzko informazioa.

ERLIJIOA	KOKAPENA	DATA
Budista	Bizkaia	2023/05/02
Ebanjelikoa	Araba	2009/06/02
Ebanjelikoa	Bizkaia	2008/11/04
Ebanjelikoa	Bizkaia	2009/01/13
Ebanjelikoa	Bizkaia	2023/09/28
Ebanjelikoa	Bizkaia eta Gipuzkoa	2008/10/22
Ebanjelikoa	Bizkaia - Euskadi	2023/10/03
Islamiarra	Araba	2023/07/04
Islamiarra	Bizkaia	2012/07/10
Islamiarra	Gipuzkoa	2009/06/23
Islamiarra	Gipuzkoa	2023/07/11
Jehovaren lekukoa	Gipuzkoa	2012/07/26

Iturria: geuk egina.



Presentación

En las últimas décadas, se ha producido una notable transformación en la realidad socio-religiosa de la Comunidad Autónoma de Euskadi —CAE, en adelante—. Estos cambios, aunque han seguido una trayectoria similar a la experimentada en otras regiones del Estado, presentan matices y particularidades propias de la sociedad vasca. Así, Euskadi ha evolucionado de ser una sociedad predominantemente católica hacia una mayor pluralidad y diversificación de las expresiones religiosas, reflejando el hecho de que la religión se trata de un proceso dinámico. Gran parte de esta evolución puede atribuirse a la apertura hacia los derechos humanos, incluida la libertad de pensamiento, que emergió a finales de la década de 1970, junto con el advenimiento de la democracia. Como resultado, se ha observado una creciente implantación de religiones diferentes a la católica, en parte como consecuencia de las migraciones internacionales. En un contexto cada vez más globalizado y diversificado, este fenómeno conlleva una importancia significativa para la comprensión de las dinámicas sociales contemporáneas, por lo que conocer la realidad actual de la diversidad religiosa en Euskadi resulta de una gran relevancia.

El presente informe trata de caracterizar la realidad actual de la diversidad religiosa en la CAE, tanto en términos cuantitativos, a través del análisis de los datos disponibles que nos pueden ayudar a conocer las dimensiones del objeto que nos ocupa; como en términos cualitativos, mediante una exposición de los avances en la gestión de la pluralidad religiosa por parte de las instituciones públicas vascas, así como de las necesidades de las comunidades religiosas para el ejercicio pleno del derecho fundamental que constituye la libertad religiosa.

Justamente, además de una previa contextualización sobre los cambios socio-religiosos ocurridos en las últimas décadas, este informe diagnóstico consta de dos grandes partes. La primera parte, de carácter cuantitativo, presenta los datos sobre la autoidentificación religiosa de la sociedad vasca, una estimación sobre el peso de las diferentes religiones presentes en la CAE y también datos sobre los lugares de culto de confesiones minoritarias y su distribución a lo largo del territorio vasco.

En la segunda parte, de carácter cualitativo, tratamos de completar la información expuesta en el capítulo anterior, a través de una recopilación de las respuestas institucionales que se le han venido dando a la gestión de la diversidad religiosa, así como una recogida de las necesidades y demandas de las entidades religiosas minoritarias en Euskadi. El análisis presentado en este apartado ha sido realizado por Gorka Urrutia Asua, Trinidad L. Vicente y Asier Martínez de Bringas, investigadores e investigadora del Instituto de Derechos Humanos Pedro Arrupe de la Universidad de Deusto.



Caracterizaciones de las religiones en la CAE

Ane Estebaranz Delgado

Julia Shershneva

Ikuspegi – Observatorio Vasco de Inmigración

Cambios socio-religiosos y normativos

Euskadi ha experimentado cambios significativos en su composición socio-religiosa en las últimas décadas, pasando de ser mayoritariamente católica a exhibir una diversidad religiosa notable. Este fenómeno, característico de las actuales democracias europeas y común a los procesos que se han venido dando en el conjunto del Estado español, refleja el reconocimiento de las diferentes identidades y la pluralidad en nuestra sociedad. La libertad religiosa en particular ha adquirido una relevancia especial a través de su reconocimiento normativo. En efecto, en el contexto democrático, vivir como una persona libre implica la capacidad de expresar la propia identidad, incluyendo la libertad de religión.

El reconocimiento legal de las confesiones religiosas ha experimentado diferentes etapas. En una primera fase, entre 1978 y 1982, se establecieron cambios normativos fundamentales que sentaron las bases para el reconocimiento de la libertad religiosa. El artículo 16 de la Constitución Española de 1978 decretó al Estado como aconfesional, fomentando la cooperación con la Iglesia Católica en concreto y con otras confesiones. En un segundo período, en torno a 1992, se produjeron cambios normativo-políticos de lo que se denominó como intensificación de la diversidad, con acuerdos de cooperación con las confesiones minoritarias de mayor arraigo en el Estado español (dos de ellas también en Euskadi: evangélicos y musulmanes). A partir de principios del siglo XXI se observa un

tercer momento, en el que se reconoce el notorio arraigo de otras cuatro confesiones ya establecidas en el Estado. Además, se crea la Fundación Pluralismo y Convivencia, consolidando el reconocimiento de la diversidad religiosa a nivel estatal. Algunas Comunidades Autónomas, entre las cuales se encuentra Euskadi, han progresado en la gestión pública de la diversidad religiosa especialmente en los últimos años, a partir de la segunda década del siglo actual.

En conclusión, los cambios normativos e institucionales en el Estado español, reflejados en el reconocimiento de la libertad religiosa y de la presencia de confesiones distintas a la católica, han contribuido significativamente a equiparar al Estado, y también a Euskadi, con otras democracias europeas en términos de derechos fundamentales.

A la par de los cambios socio-religiosos mencionados, la propia identificación con la religión de la sociedad vasca también se ha transformado a lo largo de las últimas décadas. Hemos empleado dos fuentes para conocer la autoidentificación religiosa de la sociedad vasca. Por una parte, el Sociómetro Vasco elaborado por el Gabinete de Prospección Sociológica del Gobierno Vasco¹, que periódicamente pregunta sobre esta cuestión. Por otra parte, se han analizado los datos de la encuesta Neurtu elaborada por Ikuspegí², que anualmente pregunta sobre la percepción de la discriminación de colectivos minoritarios específicos y que en la última edición de 2023 se centra en la diversidad religiosa.

